DEBAGOIENA: EGIBAR NAGUSI EAJ-KO URIBATZAR GEHIENETAN /4

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA





# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko azaroaren 14a

IV. urtea • 131. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**ARRASATE**

**Segurtasun zerbitzua kontratatuko dute ospitalerako /6**

**JONAN FERNANDEZ** / ELKARRI

*"Bake Konferentzia berria abiarazteko 100.000 sinadura lortu behar ditugu"* **/7**

**Goienka2a**

**Astronomia-zaleen taldea jarriko dute abian gaur, Oñatin**

**BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA: DEBAGOIENDARREN SAILKAPEN ETA DENBORAK**



AINTZANE IRIZAR

## Beasain-Durango, ordainpekoa

Beasain-Durango autobiaren barruan, Bergarako Zaldumenditik Arrasateko Epelera doan zatia ordaindu egin beharko da; izan ere, autobiak eta Eibar-Gasteiz autobideak bat egingo dute 3,5 kilometro horietan. Beasaindik Bizkaiko mugarainoko autobia zatian, ordaindu egin beharko den zati bakarra da hori. Gainerakoa doan izango da. Autobia lau karrilekoa izango da. Behin autobidea eta autobia egiten dituztenean, Donostiatik Gasteizera joatea 15 kilometro motzagoa izango da Debagoienetik, Etxegaratetik baino. **/4**

ASTEKO GAIA: BIZIGUNE PROGRAMA IBARREAN /3

# Errentan bizi izatea, orain, errazago

"Ez dago errentan etxebizitza hartzeko aukerarik", da ibarreko askoren ahotan entzuten den kexua. Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programak bermeak eskaintzen dizkie errentari zein jabeei, gurean hutsik dauden etxeak merkaturatzeko. Egitasmoak arrakasta handia du, baina ibarreko askok diote, zerbait entzun arren, ez dutela horren gaineko informaziorik erraz aurkitzen.

## Enrike Letona askatzea eskatzeko manifestazioa

*Zigorra beteta daukalako, Enrike Letona etxera!* lelopean manifestazio isila egingo dute bihar, zapatua, Arrasateko Herriko Plazan, 19:00etan. 30 urteko kartzela zigorra bete eta gero, maiatzean aske geratu zen arrasatearra, baina uztailaren 31n berriro atxilotu zuten ertzainek. Ordutik hona Soto del Realgo espetxean dago. Hala, bere egoera salatzeko eta Enrike aska dezatela eskatzeko Enrike Letona Askatzeko Bilgunea sortu zuten hainbat herritarrek. Bilgune horrek antolatu du biharko manifestazioa. **/5**




Zigorra beteta daukalako

**ENRIKE LETONA**

etxera!

**Manifestazio isila:**

Azaroaren 15ean, larunbata, arratsaldeko 7etan.
Arrasateko herriko enparantzan.

**Bilgunea**

Enrike Letona askatzeko







**ARRASATE**

## Egitarau oparoa prestatu dute AEDren 20. urteurrenerako

EAD elkarteak 20 urte bete ditu aurten. Hori ospatzeko, egitarau zabala prestatu dute datozen asteotarako. Hasteko, gaur, egubakoitza, Esther Uria aktoreak antzerki-bakarrizketa saioa egingo du. Bestalde, aspaldian euskalgintza jasaten dabilen erasoen inguruko mahai-ingurua antolatu dute eguenerako. **/5**


DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22



ANTZERKIA

# Las mujeres de verdad tienen curvas

ADOS TEATROA

**Azaroaren 16an, domeka, 19:30**
Arrasateko Amaia Udal Antzokian

**Sarrera: 8 € / Gazte Txartelarekin 6 €**
Sarrerak ALDEZ AURRETIK salgai Amaiako leihatilan azaroaren 14an eta 15ean, 18:00etatik 20:00etara.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

kutxaZabal Deba
Trebakuntza-Ekimenak

# HELDUENTZAKO IKASGELA

kutxaZabal Deba

**kutxa**ren Gizarte-Ekintzak, **UNED-Bergara**rekin batera, Adineko Pertsonen zerbitzuan jarri duen baliabide berria da kutxa**Zabal** Deba. Zentro honetan, Adineko Pertsonentzako Etengabeko Prestakuntza-Programa jarri da abian, ondoko helburuekin:

- Adineko Pertsonen artean prestakuntza eta kulturaren sustapena bultzatzea.
- Bizi-kalitatearen eta zahartze aktibo eta osasungarriaren alde egitea.
- Adineko Pertsonek kultur esperientzia berria erdibana dezaten, topaleku berria zabaltzea.

## Etengabeko Prestakuntza Programa

**1go Fasea: Giza Harremanei eta Osasunari Buruzko Gaiak**
Ikastaroak: Ordutegia: 17:00etatik 20:00etara
- Giza Harremanak (Urtarrilak 15, 22)
- Osasuna eta Bizitza Osasungarria (Urtarrilak 29, otsailak 5)
- Dieta eta Osasuna (Otsaiak 12, 19)

**2. Fasea: Gure Inguruneko Ezagutzari Buruzko Gaiak**
Ikastaroak: Ordutegia: 17:00etatik 20:00etara
- Euskal Herria (Otsailak 26 , martxoak 4)
- Deba Garaia Eskualdea (Martxoak 11)
- Bergara (Martxoak 18, 25)
- Bisitaldiak (Apirilak 23, 30)

**3. Fasea: Hautazko Gaiak edo Aukera Librekoak**
Ikastaroak: Ordutegia: 17:00etatik 20:00etara
- Informatikaren Hastapenei Buruzko Tailerra (Maiatzak 6,13,20,27)
- Tai Chi-aren Hastapenei Buruzko Tailerra (Maiatzak 6,13,20,27)

**Tokia, Informazioa eta Izen-ematea**

UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA
CENTRO ASOCIADO UNED-BERGARA

**UNED-BERGARA:
HELDUENTZAKO IKASGELA**
S. Martín Agirre Plaza, 4
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 76 90 33 Fax-a: 943 76 27 21
E-maila: info@bergara.uned.es

**> MATRIKULAZIOA:** Azaroaren 15etik abenduaren 15era

www.begira.com

kutxa
gizarte ekintza

# Dozena bat etxe errentan jarriko ditu Bizigunek aurten

## Ibarreko 482 lagunek eskatu dute etxebizitza Bizigune egitasmoan

LEIRE KORTABARRIA

Eusko Jaurlaritzak orain dela gutxi egindako inkesta baten arabera, Debagoieneko etxebizitzetatik %6,5 hutsik daude. Eustat erakundearen datu berrienak 1996koak dira, baina horiek ematen dute dagoeneko gure ibarreko egoeraren berri: etxebizitza huts asko dago, eta etxebizitza bila dabilen jende asko ere, baina bi multzo horiek ez dira uztartzen.

Debagoienean tradizio gutxi dago etxebizitzak errentan jartzeko. Maizter asko beldur izaten dira etxebizitzondako kalterik egongo ote den, edo, epe bat pasatuta, euren etxebizitzarik berreskuratzeko aukerarik ez ote duten izango. “Debagoienean, bigarren etxebizitza duen jende asko dago, baina gehienek inbertsio moduan dute, eta ez dute inbertsio hori arriskuan jarri nahi”, dio Bergaran etxebizitza aurkitu ezin dabilen debagoiendar batek.

**DEBAGOIENEAN**

Egoera nahasi horrekin amaitzeko modu bikaina izan daiteke Eusko Jaurlaritzaren Bizigune egitasmoa. Bere helburua da 2005erako 5.000 etxebizitza errentan jartzea. Horretaz arduratzen da Visesa enpresa publikoa. Indarrean jarri zenetik, 482 debagoiendarrek eman dute izena etxebizitza bat errentan hartzeko. Eskaerak, herriz herri, honakoak izan dira: 158 Arrasaten, 126 Bergaran, 108 Aretxabaletan, 61 Oñatin, 16 Antzuolan eta 13 Elgetan.

Bestalde, ibarrean etxebizitza bat errentan jartzea lortu du Bizigunek; zortzi onartuta daude merkaturatzeko; eta beste hainbat aztertzen ari dira teknikariak. Oro har, Visesak dioenez, “urte bukaerarako espero dugu dozena bat etxe errentan jarri ahal izatea Debagoienean”. Arduradunen esanetan, “orain arte uste baino polikiago joan gara, langile faltagatik; baina, egitasmoaren arrakasta ikusita, gure lan-taldea indartu dugu, eta hemendik eta urte bukaerara arte, indar berria emango diogu Bizigune egitasmoari”. EAE osoan, 2.000 deitik gora jaso dituzte.



LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko etxebizitza batek baditu bizilagunak, Bizigune programari esker.

**Etxebizitza motak (1996)** ITURRIA: EUSTAT

| Herria | Etxebizitza kopurua | Etxebizitza nagusia | Bigarren etxebizitza | Etxebizitza hutsa | Egoitza kolektib. |
|---|---|---|---|---|---|
| Antzuola | 714 | 595 | 1 | 118 | 0 |
| Aramaio | 503 | 388 | 11 | 104 | 0 |
| Aretxabaleta | 2.140 | 1.822 | 27 | 289 | 2 |
| Arrasate | 8.319 | 7.429 | 222 | 657 | 11 |
| Bergara | 5.900 | 4.927 | 10 | 956 | 7 |
| Elgeta | 422 | 311 | 0 | 110 | 1 |
| Eskoriatza | 1.475 | 1.209 | 13 | 251 | 2 |
| Leintz Gatzaga | 121 | 79 | 0 | 42 | 0 |
| Oñati | 4.123 | 3.240 | 0 | 874 | 9 |

**Bizigune**

- **Maizterrak merkatu libreko errenta jasotzen du**
- **Errentariak irabazien %30a bakarrik ordaintzen du**
- **Bataz beste, 530 euro jasotzen du maizterrak, eta 290 ordaintzen du errentariak**
- **Argibideak: 900 25 12 51 telefonoan**

**BERMEAK BI ALDEENDAKO**

Arrakasta hori ez da harritzekoa; izan ere, Bizigune programak hainbat elementu berri eta erakargarri txertatzen ditu. Izan ere, Visesa enpresa arduraduneko Pablo Aretxabalak dioen bezala, “orain arte, administrazioek bitartekari moduan egiten zuten lan, eta horregatik egin dute porrot hainbat egitasmo publikok, maizterrek beldurrez jarraitzen zutelako”.

Biziguneren ezaugarri berezia da Jaurlaritzak ez duela bitartekari soil bezala lan egiten, baizik eta maizterraren papera hartzen du. Administrazioak sinatzen du kontratua eta merkatuko preziora ipintzen du errentan etxebizitza, eta gero, prezio baxuagoan eskaintzen die errentariei. “Errentariek 290 bat euro ordaintzen dute errenta moduan, bataz beste; errenta baxuenak 75 eurokoak dira. Bestalde, maizterrari 530 euro ordaintzen dizkiogu, bataz beste”, azaltzen du Pablo Aretxabala arduradunak. Maizterrak jasotzen duenaren eta errentariak ordaintzen duenaren arteko aldea Etxebizitza eta Gizarte Sailaren kontu doa. Maizterrak 660 euro jaso ahal izango ditu, gehienez.

**INTERESIK GABE ETXEA BERRITU**

Errenta puntualitatez jasotzearen bermeaz gain, maizterrari beste berme bat eskaintzen dio Bizigune programak: hain zuzen ere, Aretxabalak argitzen duen moduan, “etxebizitza jaso genuen baldintza beretan bueltatuko diogu jabeari. Etxebizitza kaltetuta dagoen kasuetan, Visesak egin beharreko lanak egingo ditu, eta maizterrari errentaren zati bat kenduko dio, finantzaketa bete arte. Horrela, etxebizitza berritzeko aukera dute, interesik gabe”.

Bizigune programan errentari moduan parte hartzeko, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzaren Etxebideren zerrendan izena emanda izatea. Etxea errentan eman nahiz gero, teknikari batzuek azterketa egingo diote.

DEBAGOIENEKO DEIAK

### Informazioa eskatzeko 30 dei jaso dituzte ibarretik

**Bizigune programarekiko interesa agertu dute hainbat debagoiendarrek. Hain zuzen ere, informazioa eskatzen 30 dei jaso dira hemendik. Hala ere, udalerri jakin batzuetatik jaso dira dei gehienak, eta baita etxe eskaera zein eskaintza gehienak ere. Visesak onartzen du informazioa ez dela behar bezainbat zabaldu hainbat herritan. Ibarreko hainbatek diote entzun dutela zeozer, baina ez dutela informazioa eskuragarri aurkitu.**

FIDANTZA ETA EPEAK

### Sarrien ematen diren arazoak saihesteko modua

**Kontsumitzaileen elkarteek deiak jasotzen dituzte batzuetan, kexu edo argibide bila. Egoera zail gehienak fidantza dela-eta sortzen dira: hain zuzen, jabe askok fidantza bereganatzen dute, etxebizitzan kalteak izan direnaren aitzakiarekin. Maizterren kexu sarriena da errentaria epez kanpo dagoela etxean bizi izaten. Bizigune egitasmoak egoerok saihesteko modua eskaintzen du, hori dela-eta du halako arrakasta.**

MERKATU BELTZA

### Bizigune programak ezkutuko alokairuekin amaitu dezake

**Bizigune egitasmoak izan dezakeen efektu bat da alokairuaren inguruan dagoen merkatu beltzarekin bukatzea. Mondragoeko inmobiliaria ezagun batek diosku: “Alokairu gehienak ezkutuan egiten dira. Besteek, hilabete batzuetarako kontratua bakarrik egiten dute, epe luzeez beldur direlako”. Biziguneren helburuetako bat da maizterrei berme guztiak eskaintzea; hortaz, isilpeko alokairuak murritz daitezke.**

BIZIGUNEN PARTE HARTU

### Baldintza batzuk bete behar dituzte maizter zein errentariek

**Jabeendako baldintzak dira etxebizitzak ezin duela babes ofizialekoa izan, eta ezingo du 120m2 baino handiagoa izan. Merkatu libreko alokairua ezingo da 660 euro baino altuagoa izan, eta hori jasoko du maizterrak, gehienez ere. Etxea errentan hartu nahi dutenek Etxebide zerbitzuan eman beharko dute izena, urteko 33.000 euro baino gutxiagoko irabaziak izan, EAEn bizi eta etxebizitza baten jabe ez izan.**



MONIKA BELASTEGI
Aurrekontuaren zati handiena, %36,75, hain zuzen ere, gizarte gastuetara bideratuko dute.

# Abenduan onartuko ditu Gipuzkoako Diputazioak 2004ko aurrekontuak

*Gipuzkoako Batzarreko alderdi guztiekin egin du berba diputatuak*

AINTZANE IRIZAR

**Abenduaren 22an onartuko dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2004ko aurrekontuak, Batzar Nagusietan. Aurrekontuen testu ofiziala aurkeztu berri dute, eta horren arabera, 556.821.454 eurokoa izango da aurrekontua.**

Azkeneko asteotan aurrekontuen gainean berba egin eta adostasuna lortzeko batzarrak izan ditu diputatu nagusiak Batzar Nagusietan ordezkaritza duten alderdi politikoekin.

Orokorrean, pozik azaldu da Gonzalez de Txabarri hartu-emanen emaitzekin. PSE-EErekin izandako batzarraren ondoren, esaterako, diputatu nagusiak esan zuen sozialistekin adostasunera iristeko aukera badagoela. Aralar alderdiak ere positibotzat jo zuen diputatuarekin izandako batzarra. Ezker Batuarekin izandako batzarraren gainean, baina, zera esan zuen diputatuak: oso zaila ikusten duela adostasunera iristea, EBren baldintzetako bat Gipuzkoan errauskailurik ez egitea da eta. PP alderdiari dagokionez, azkenik, Regina Otaolak adierazi zuen ez dituztela aurrekontuok onartzen, Ibarretxe Planaren aldekoak direlako.

### GIZARTE GAIETAN HAZKUNDE HANDIEN

Azaro hasieran aurkeztu zuen Gonzalez de Txabarrik 2004ko aurrekontuen testu ofiziala.

556.821.454 euroko aurrekontua izango du Diputazioak, iazkoarekin alderatuta, %7,7 handiagoa. Aipatzekoa da aurrekontu osoaren %36,75 gizarte gastura bideratuko dutela. Beste datu deigarri bat da berrikuntza eta ezagutzaren kulturara bideratuko duten aurrekontua %19,39 hazi dela. Dena dela, Bide Azpiegituren Departamentuak eramango du aurrekontuaren zati handiena: %28,37.

### DEBAGOIENERAKO DIRUA

Aurrekontuetan zehaztutakoaren arabera, hainbat gastu aurrez ikusten dituzte Debagoienean: jakintzaren eta enpresa jarduerаren sustapenerako aurrekontuaren barruan, 691.963 euro bideratuko dituzte MUra; bestalde, hainbat errepidetarako bideratuko dute dirua: Zubillagako saihesbidea, A1 autobideko ibarreko hainbat zati, Zumarraga eta Bergara arteko errepidea...

# Ibarreko EAJko uribatzar gehienek Egibarren aldeko apustua egin dute

*Oñatiko eta Antzuolako uribatzarrak bakarrik azaldu dira Imazen alde*

AINTZANE IRIZAR

Oraingo astean egin dituzte batzarrak ibarreko uribatzar gehienek, EAJko presidente berria aukeratzeko.

Arrasateko uribatzarrak, esaterako, eguazten arratsaldean egin zuen batzarra eta bozketa, eta Joseba Egibarren alde azaldu ziren batzarkide gehienak. 30 boto lortu zituen Egibarrek, eta 23, berriz, Josu Jon Imazek. Astelehenean eta martitzenean, gainera, Egibarren eta Imazen bisita izan zuten Arrasateko EAJkoek, eta nork bere proposamena aurkeztu zien batzarkideei. Eskoriatza, Aretxabaleta eta Elgetako uribatzarrak ere Joseba Egibarren alde egin dute. Antzuolako uribatzarra, berriz, Josu Jon Imazen alde azaldu da.

Bergaran, Aramaion eta Oñatin aurreko astean egin zituzten batzarrak, aurreko GOIENKARIAn azaldu genizuen moduan. Bergaran eta Aramaion Joseba Egibarrek lortu zituen boto gehien, eta Oñatin, berriz, Josu Jon Imazek.

Bihar, zapatua, bukatuko dituzte lehendabiziko bozketak, eta urtarrilean egingo dute presidente berria aukeratzeko batzar orokorra.



GOIENKARIA
Joseba Egibar.

## ELKARRIZKETA/IKASLE ABERTZALEEK 15 URTE

**ENEKO BARBERENA** / ANTOLATZAILEA

# *"Hezkuntza Madrilen eta Parisen erabakitzen da"*

AINTZANE IRIZAR

**Ikasle Abertzaleak taldeak 15 urte beteko dituela eta, hainbat ospakizun antolatu dituzte biharko, zapatua, Alegian. Eneko Barberena taldeko kide eta antolatzaileetako batekin egin dugu berba Ikasle Abertzaleen eta biharko ospakizunen gainean.**



ARTXIBOA
Eneko Barberena arrasatearra.

**Zapatuan 15. urteurrena ospatuko duzue. Urteurrenaz gain, zer duzue ospatzeko ikasle eta abertzaleok?**

Hamabost urteren ondoren hemen jarraitzen dugula; geure lana berriz baieztatzen gabiltzala, euskalduntzearen eta ikasleon eskubidearekin aldeko lanarekin. Oraindik, gainera, gogo eta indar handiarekin gaude beste urte askoan lanean jarraitzeko.

**Ikasle Abertzaleak ikasleen erreferente garrantzitsua direla azaldu duzue. Ikasle esparruko zein alorretan eta Euskal Herriko zein eremutan duzue indar handien?**

Urtetan, unibertsitateetan izan du indar handien, unibertsitate publikoetan, batez ere. Baina ikasketa ertainetan ere egon dira taldeak.

Bestalde, aipatzekoa da orain dela pare bat urtetik IA erakunde nazionala dela; hau da, Iparraldean ere badago IA.

Beste erakunde batzuekin gertatu ez den bezala, IAk indar handiagoa izan du Araban eta Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan baino. Azkenaldian, baina, Gipuzkoan eta Bizkaian ere indar handia lortzen gabiltza; batez ere, Bizkaiko campusean.

**Gaur egun zeintzuk dira ikasleon arazo nagusiak?**

Arazo handiena da gure hezkuntza Madrilen eta Parisen erabakitzen dutela. Horrek esan nahi du ez direla kontuan hartzen euskara, euskal edukiak... Horrez gain ere arazo ugari ditugu: Euskal Herrian ikasi ahal izateko arazoak dituzte, Iparraldean, bereziki; tasak eta matrikulak oso altuak dira, eta ikasketa publikoen izaera kolokan geratzen da; garraioekin ere arazoak daude...

**Debagoienean IAren zenbat talde daude?**

Bergaran hiru talde ditugu: Ipintza institutuan, Migel Altuna institutuan eta Aranzadi ikastolan. Mondragon Unibertsitateko fakultate guztietan ere badittugu taldeak: Oñatin, Arrasaten eta Eskoriatzan, hain zuzen ere.

**Zapatuko ospakizunerako ze espero duzue?**

Jai giroan ospatuko dugun egun polit bat izango dela espero dugu. Egitarau zabala antolatu dugu, eta Debagoienetik bertatik jende asko joango dela uste dugu; Arrasatetik eta Bergaratik autobusak egongo dira. Kontzertura Euskal Herri osoko milaka ikasle etortzea espero dugu.

*"Hamabost urteren ondoren hemen jarraitzen dugu, aurrera egiteko gogo eta indar handiarekin"*

PREVISORA BILBAINA
ASEGURUAK
Osasun zerbitzuen eskaintza zabala barne duen HERIOTZA-ASEGURU bakarra.
Hitzartutako mediku, dentista, optika-kate eta bainuetxeetan DESKONTUAK
Zerrajera kalea 4, 1.
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 19

Carrión música, s.a.
• Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
• Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.
Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

# Bergara eta Arrasate arteko autobia zatia ordaindu egin beharko da

*Donostiatik Gasteizera joatea 15 kilometro motzagoa izango da*

A.I.

**Beasain-Durango autobiaren barruan, Bergarako Zaldumenditik Arrasateko Epelera doan zatia ordaindu egin beharko da; izan ere, autobiak eta autobideak bat egingo dute 3,5 kilometro horietan.**

Bi azpiegitura garrantzitsu ditugu martxan Debagoienean: Eibar-Gasteiz autobidea eta Beasain-Durango autobia. Bi errepide horiek bat egingo dute Bergaran, Zaldumendin, hain zuzen ere. Zaldumenditik Arrasateko Epeleraino, hain zuzen ere, egingo dute bat autobiak eta autobideak: 3,5 kilometro izango ditu, guztira, zati horrek. Horrek esan nahi du Bergaratik Arrasatera joateko ordaindu egin beharko dugula. Oraindik zehaztu ez dutena da zenbat ordaindu beharko dugun autobideko kilometro bakoitzeko. Beste aukera bat, noski, Zaldumendi parean errepide zaharrera irtetea izango da.



A.I.
Bergarako Zaldumenditik Arrasateko Epelera arteko zatia 2005ean bukatuko dute.

**DONOSTIATIK GASTEIZERA, MOTZAGOA**
Behin autobidea eta autobia egiten dituztenean, Donostiatik Gasteizera joatea 15 kilometro motzagoa izango da Debagoienetik, Etxegaratetik baino. Hau da, Donostiatik Arrasateraino N-1 errepidea eta Beasain-Durango autobia erabiliz, eta handik aurrera, berriz, Eibar-Gasteiz autobidea hartuta. Hala, automobil askok aukera hori egingo dute eta zirkulazioa areagotu egingo da Debagoienean.

# AED elkarteak 20. urteurrena ospatuko du datozen egunotan

*Gaur, egubakoitza, hasi eta hilaren 23ra arte hainbat ekitaldi egongo da*

AINTZANE IRIZAR

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte AED euskara elkartearen 20. urteurreneko ospakizunak. Ester Uria aktoreak *Urak dakarrena... glu-glu glu-glu* antzezlana eskainiko digu Jai-Zale tabernan, 23:00etan.

Datorren eguenean, hilak 20, euskalgintzaren gaineko mahai ingurua izango dugu; Martxelo Otamendik, Xabier Mendigurenek, Miren Azkaratek eta Joxe Mari Muxikak hartuko dute parte. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da hori, 18:30ean. Hilaren 22an, zapatua, bertso bazkaria egongo da Jon Maia eta Xabier Amurizarekin; 14:30ean, Uarkapeko frontoian izango da bazkaria.

Azaroaren 23rako, domeka, Arrasaten zehar ibilaldia antolatu dute; 09:00etan irtengo dira Arbolapetatik. 18:30ean, berriz, *Antzerkia, poesia eta pintura bat eginik* ikuskizuna egongo da gaztetxean.

Azaro bukaeran, azkenik, *Jokin Zaitegi* liburua aurkeztuko dute eta Palestinaren gaineko emanaldia egingo dute.




## Musika eskoletako langileen agerraldia

Irakaskuntza Pribatuko musika eskoletako Euskal Autonomia Erkidegoko langileek kontzentrazioa egin zuten eguazten goizean Bergaran, ELA sindikatuak deituta. Zera eskatzen diote patronalari: soldata %4,7 igotzea eta urte osoko lanaldiaren benetako murrizketa.

Eskaera horien aurrean, patronalak soldataren %3,9ko igoera eta urteko lanaldia 10 edo 15 ordu murriztea eskaini die. Langileak, baina, ez daude ados patronalaren eskaintza horrekin. /A.I.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Enrike Letonaren aldeko manifestazioa antolatu du Bilguneak biharko, zapatua

*Zigorra beteta daukalako, Enrike Letona etxera* lelopean manifestazio isila egingo dute bihar, zapatua, Arrasateko Herriko Plazan, 19:00etan. 30 urteko kartzela zigorra bete eta gero, maiatzean aske geratu zen Enrike, baina uztailaren 31n berriro atxilotu zuten ertzainek. Ordutik hona Soto del Realgo espetxean dago. Bere egoera salatzeko eta Enrike aska dezatela eskatzeko Enrike Letona Askatzeko Bilgunea sortu zuten hainbat herritarrek; urriaren 29an egin zuten talde horren aurkezpena. Bilguneak, hain zuzen ere, antolatu du biharko manifestazioa eta aurrera begira beste ekimen batzuk antolatzeko asmoa erakutsi du.

### Harreman-ek ate irekien jardunaldia egingo du bihar, zapatua, Eroskiko dendan

Harreman Hirugarren Mundua gobernuz kanpoko erakundeak Arrasateko Eroskin duen dendan egingo du ate irekien jardunaldia bihar, zapatua. Bidezko Merkataritza bultzatzen du Harreman-ek, eta haren produktuak dastatzeko aukera eskainiko digute zapatuan: txokolatea, kafea... Bestalde, datorren asteko eguaztenean, hilak 19, Kolonbian eta Ekuadorren kooperante egon diren bost gaztek berbaldia egingo dute Monterronen, 19:00etan. Horien artean izango dira Jone Morras eta Ekain Zubizarreta arrasatearrak.

### CIM hizkuntza akademiari Zilarrezko Q saria emango diote abenduaren 11n

Abenduaren 11n Donostiako Kursaalen egingo duten sari banaketa ekitaldian, Zilarrezko Q saria emango diote MCCko CIM hizkuntza akademiari. Horrela, azkeneko urteotan ikastetxean ezarri duten kalitate sistema saritu diote. Aipatzekoa da, bestalde, MCCko beste hezkuntza zentro bati ere emango diotela ziurtagiri hori, MUko Eskola Politeknikoari, hain zuzen. Arrasaten, Oñatin, Donostian eta Gasteizen ditu ikastetxeak CIMek, eta ingelesa, frantsesa, alemana, italiera eta espainola irakasten dituzte.

URTEURRENA
URTEKO PREZIORIK ONENAK!!
(ALDE HANDIAREKIN)

EROSKI BIDAIAKek urteak egiten ditu, eta handikiro ospatu nahi du.
Eskaintza bikainak kaleratuko ditu horretarako: Kanarietara, Karibera, Europara, Kostaldeetara... Kaleratu ahala kentzen dizkigute esku artetik.
Eskaintza horiek 2004ko udaberrira arte izango dituzu!
Erreserbatu itzazu orain zure oporrak.
EZ DUZU URTE OSOAN HORRELAKO PREZIORIK IKUSIKO.
Viajes Eroski Bidaiak
Grupo Eroski
Kalitatea Bermatuta
eskaintza gehiago www.viajeseroski.es
EROSKI BIDAIAK

ANTZUOLA

## Kristina Pavok aztertu eta batuko du herriko toponimia

Kristina Pavori eman diote Antzuola Herria Ikerketa Beka, herriko toponimia aztertu eta jasotzeko. Kristina Pavo antzuolarra da eta Euskal Filologian lizentziaduna.

Herriko tokien izenak jaso, aztertu, sailkatu eta arautzea izango da Kristinaren lana. Horrela, baserriak, auzoak, iturriak, mendiak eta beste hainbat lekuren izenak izango ditu aztergai.

Ikerketa lan horren helburua da ondare historikoa jasotzea eta galtzeko arriskuan dauden izenak gordetzea. /E.I.



GANBARA

OÑATI

## Hiru sari jaso ditu Ganbara abesbatzak Alacanten

Aurreko zapatuan Concentainan (Alacant) jokatutako abesbatzen lehiaketan jokoan zeuden sari guztiak irabazi zituen Oñatiko Ganbara abesbatzak: txapelketa bera irabazi zuten, batetik, baita ikusleen saria eta talde guztiendako derrigorrezkoa zen kantuaren saria ere. Lau urtean behin, aurreko urteetan irabazle izan direnek lehiaketa jokatzen dute Concentainan; datorren urtean izango da hori, eta Gasteizko Alaitz abesbatza eta Gandiako Orfeo Borja izango dituzte aurrez aurre Ganbara abesbatzakoek.

Baina ez da hau oñatiarrek aurten irabazi duten lehen saria; apirilean, Ejea de los Caballerosko (Zaragoza) lehiaketan beste bi sari irabazi zituzten. /A.I.

ARETXABALETA

## Bai Euskal Herriari taldeak atxikimendu kanpaina jarri du abian gaur

Aretxabaletan sortu berri den Bai Euskal Herriari taldeak herriko hainbat eragileri bideratutako kanpaina jarri du abian gaur. Gizarte eragile, politiko, talde eta elkarteen partaidetza eta konpromisoa eskatuko diete, eta horretarako eskutitzak bidaliko dizkiete.

Bai Euskal Herria taldearen helburua EHNA tramitatzea da eta herrian erabili ahal izateko bideak zabaltzea. Horretarako herritarren konpromisoa gura dute, eta, bide batez, gogorarazi taldeak zabalik jarraitzen duela. /M.A.

ELGETA

## Udalaren zergak eta tasak 2004an %2,5 igotzea proposatu dute

Datorren asteleheneko osoko bilkuran, besteak beste, udal-zergen igoeraren gaineko gaia aztertuko dute. Urtero-urtero udalzergek gora egin ohi dute eta aurten ere gora egitea da proposamena. Hain zuzen ere, tasak eta zergak gaurkotzean 2002ko irailetik aurtengo irailera bitartean KPIk izan duen igoera hartuko dute kontuan. Gipuzkoan %2,8 igo da, eta erreferentzia horren arabera, tasak %2,5 igoko dira Elgetan. Iaz igoera %3,5ekoa izan zela ikusita, datorren urterako proposatutakoa txikiagoa da. /I.A.

ESKORIATZA

## Gipuzkoako Bertso Txapelketako lehen finalerdia jokatuko dute domekan

Domekan, azaroak 16, Gipuzkoako Bertso Txapelketako lehenengo finalerdia jokatuko dute Eskoriatzan. Kiroldegian izango da ekitaldia, 17:00etan hasita, eta Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Estitxu Eizagirre, Arkaitz Goikoetxea, Bixente Gorostidi eta Amaia Agirrek jardungo dute bertsotan. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 71 bertsolarik hasi zuten irailaren 26an, eta onenek egin dute aurrera. Bertsozale ugari hurreratuko direla jakinik, HUHEZIko fakultateko aparkalekua zabalik izango dute. /M.A.

ARRASATE

## Segurtasun zerbitzua kontratatuko dute Eskualde Ospitalerako

Arrasateko Eskualde Ospitaleak segurtasun enpresa bat kontratatzea erabaki du. Azkeneko aldiz gertatutako istiluen ostean eta ikusita halakoak behin baino gehiagotan gertatzen direla hartu dute erabakia.

Kontua da orain dela pare bat aste, burua nahastuta zuen gaixo batek apurketak eragin zituela Eskualde Ospitaleko larrialdien gunean. Ordenagailuak bota, ospitaleko materiala apurtu... Denetarik egin zuen. Hango langileek eta han zeuden gaixoek susto handia hartu zuten. Azkenean, Ertzaintzak joan behar izan zuen istilua baretzera; izan ere, Eskualde Ospitaleak ez du halako gertaerei aurre egiteko inolako segurtasun zerbitzurik.

Itxura denez, gainera, ez da lehenengo aldia halako zerbait gertatzen dela.

Horren guztiaren aurrean, ospitaleko langileek segurtasun zerbitzua kontratatzeko eskaera egin zioten zuzendaritzari. Baina, orain arte, zuzendaritzak ez du eskaera onartu, aurrekontuarekin lotutako arrazoiak zirela medio.

**DATORREN URTERAKO**

Orain, aldiz, azkeneko sustoaren ostean, badirudi zuzendaritzak sakonago aztertu duela egoera. Eta erabaki dute datorren urtetik aurrera segurtasun zerbitzua egongo dela Eskualde Ospitalean.

Esan beharra dago Arrasateko Eskualde Ospitaleak izan ezik, Osakidetzako gainerako ospitale guztiek badutela halako zerbitzurik.

**Zertzelada**

**Orain dela bi aste, burua nahastuta zuen gaixo batek apurketak eragin zituen ospitaleko larrialdien gunean. Ertzaintzak joan behar izan zuen.**

BERGARA

## Epaitegia zaharberrituko dute eta ezinduendako sarrera egingo diote

Eusko Jaurlaritzak egin du epaitegia zaharberritzeko proiektua, eta helburua da eraikina kanpoko aldetik zaharberritzea eta ezinduendako sarrera egitea.

Estalki osoa berritu egingo dute eta estalkiko leihoak aldatu egingo dituzte. Bestetik, euri-urendako hodiak eraikinaren kanpoko aldetik jarriko dituzte, jatorrian zeuden moduan. Horrez gainera, fatxadak garbitu egingo dituzte. Bestetik, ezinduendako sarrera ere egingo dute.

Euri-urak jasotzeko sarea eta ezinduendako sarrera egiteko, epaitegi aurreko lorategiak kendu egingo dituzte. Baina aisialdigune izaten segituko du zuhaitz eta jarlekuekin. /M.B.



M.B.

**XIX. mendearen bigarren erditik da Bergara barruti-judizial buru.**

ARAMAIO

## Farola Eguna ospatu zuten aramaiarrek San Martin bezperan

Egun berezia ospatu zuten aramaiarrek astelehenean: Farola Eguna. San Martin Eskolako bi irakaslek sortutako ekimena da. Orain dela hiru urte hasi ziren, San Martin bezperan. Batez ere eskolako umeek eta haien gurasoek parte hartzen dute.

Egiten dutena zera da: lehenengo, nork bere faroltxoa egiten du, paperezkoa eta makilatxo batetik zintzilik ipinita. Iluntzean, Andra Marirako bidea hartzen dute, eta han gaztainak jaten dituzte eta kantu berezi bat abesten dute. /U.M.

LEINTZ GATZAGA

## Giro polita eta jende ugari aurtengo Gatzagako San Milixanetan

Eguraldi paregabea egin zuen joan den domekan Gatzagan. Jende ugari hurbildu zen bertara. Artisauek gogotik egin zuten lan eta produktu ugari saldu zituela esan zigun batek baino gehiagok. Egubakoitz eguerdian, *Gatzaga 2003* diaporamaren egileak eta ibarreko hainbat lagun egon ziren diaporamaren lehen emanaldian. Zapatuan, berriz, herritarren txanda izan zen, eta gatzagar askok ikusi zuten diaporama. Pozik agertu dira, beraz, lortutako emaitzekin antolatzaileak. /A.G.




GOIENKARIA

# *Jonan Fernandez*

ELKARRIKO KOORDINATZAILEA

# “Bake Konferentzia abiarazteko 100.000 sinadura lortu behar ditugu Euskal Herrian”

ALDERDIEN PARTAIDETZA BAKE KONFERENTZIAN

**“Gure filosofia ateak denentzat irekitzea da, eta ahalegin guztiak egingo ditugu gardentasunez eta informazio guztiarekin alderdi guztiek parte hartzeko”**

EUSKAL HERRIAREN ETORKIZUNA

**“Bake Konferentzia bukatu eta gero adostasun baten inguruko Euskal Herria nahi genuke, baina konformatuko ginateke helburua lortzeko ekarpen polita egitearekin”**

Elkarri erakundeak 11 urte ditu eta urte horietan guztietan Jonan Fernandezek bertan jardun du lanean. Bake Konferentzia berria gertatzen dihardute orain, eta prestakuntza fase hori ibarreko zenbait herritan aurkeztu dute Elkarrikoek eta beste batzuetan azaltzekoak dira. Beraien asmoa Bake Konferentzia aurrera atera dadin herritarren sinadurak biltzea da.

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Ibarreko hainbat herritan aurkeztu duzue Bake Konferentzia berriaren prestakuntza fasea. Zein da aurkezpen hauen helburua?**

Batetik, egungo egoera konplikatua aztertzea da gure nahia, eta bestetik, Elkarri prestatzen ari den proiektua debagoiendarrei eskaintzea. Bake Konferentziaren proiektua da, martxotik aurrera martxan jarriko dena. Ordura bitartean sinadura kanpaina bat ipini dugu abian eta hori guztia aurkeztea da hitzaldien helburu nagusia. Guztira, 100.000 sinadura batu nahi ditugu, eta horiek lortuz gero, Nafarroako eta Gasteizko parlamentuetara alderdi askoren arteko elkarrizketa saioak aurrera ateratzeko proposamena eramango dugu, eta horrela abiaraziko dugu Bake Konferentzia.

**Hitzaldiez gain, beste bideren bat erabiliko duzue proiektua azaltzeko?**

Euskal Herriko etxeetako postontzietan banatuko dugu Elkarriren idatzia eta jendea animatu nahi genuke Bake Konferentziaren proiektua azaltzen duen manifestu hori sinatzera.

**Bake Konferentzia dela eta manifestu bat eman duzue argitara. Zer dio idatzi horrek?**

Manifestuaren mamia elkarrizketa da. Egungo egoera oso berezia da, eta badaude elementu positibo argi batzuk. Konponbiderako proposamenak aurkezten ari dira. Guretzat hau elementu oso garrantzitsua da, eta egoera honetan elkarrizketa eta akordio anitza exijitzen dugu; beraz, hori da manifestuaren ideia nagusia. Horrekin batera, biolentziaren amaiera, bazterketa alde batera uztea eta elkarrizketa eta humanizazio prozesua aurrera eramateko nazioarteko laguntza ere eskatzen ditu manifestuak.

**Bake Konferentzia berrian nazioarte mailan zerbait egitekoak zarete, beraz. Nolako erantzuna espero duzue?**

Oso erantzun ona espero dugu. Urtetako esperientzia zabalaren ondorioz, zazpi Bakearen Nobel saridunek gure esperientzia eta ahalegina babestu dute. Gainera, Elkarriren barruan bada atal bat nazioarteko gaiari eusten diona, eta sare indartsua sortzen ari gara Euskal Herrian bake prozesua bultzatzeko.

**Nazioarteko partaidetza espero duzue. Baina nola bermatuko da Euskal Herriko alderdi guztien parte-hartzea, kontuan hartuta Batasunaren ilegalizazioa eta PPk seguru aski parte hartzeari uko egingo diola?**

Elkarrizketarako metodologiak prestatu behar dira denek parte hartzeko. Alde horretatik, oraingoan, Nafarroako eta Gasteizko parlamentuei zuzenduko diegu proposamena, elkarrizketa foroa aurrera ateratzeko. Bertan, gure ustez, ezker abertzaleak egon behar du, gizarte honetako zati bat delako. Bestalde, Alderdi Popularrak ere egon behar du; beste kontu bat da beraiek parte hartu nahi duten edo ez. Gure filosofia ateak denentzat irekiak izatea da, eta ahalegin guztiak egingo ditugu gardentasun eta informazio guztiarekin beraiek parte hartzeko. Nahi ez badute gu ezin gara ezer egin gabe geratu, aurrera jarraituko dugu.

**Alderdi politikoak aipatu ditugun honetan, Bake Konferentziak izango al luke zentzurik baldin eta datorren urteko hauteskunde orokorretan gobernu aldaketarik ez balego?**

Bai, agian behar handiagoarekin, gainera. Guk proiektua diseinatzen dugu kontuan hartu gabe zein alderdik irabazi edo galduko dituen hurrengo hauteskundeak. Bestela, loterian jokatzea izango litzateke. Uste dugu herri honetan, Irlandan bezala, elkarrizketa prozesua behar-beharrezkoa dela batzuk zein besteak agintean egonda.

**Aurrez egin da Bake Konferentziarik. Bada, zein desberdintasun ikusten duzue aurrekoaren eta oraingoaren artean?**

Batetik, ezberdintasun garrantzitsua da urte bat pasa dela aurreko Bake Konferentziatik berrira, eta hemen denbora ez da debalde pasatzen. Gauzak aurrera doaz, aldatzen doaz, eta gure ustez orain dela urtebete baino behar handiagoa dago bake eta elkarrizketa prozesurako. Horrez gain, lehengoan erabili zen metodologia bera erabili behar dela uste dugu, alderdi politiko guztiek oso ongi baloratu zutelako bere garaian. Guretzat garrantzitsua izango da nazioartetik laguntza indartsua lortzea, eta bestalde, gizartearen aldetik, parte hartze handiagoaplanteatzea. Horiek izango lirateke bien arteko aldaketa nagusienak.

**Bake Konferentzia hau euskal gatazkarentzako irtenbide modura planteatzen da. Epe laburrean euskal gatazkak irtenbiderik izango al du?**

Epe laburra zenbatekoa den, hor dago koska. Gure ustez, datorren urtea gakoa izango da. Irtenbiderik aurkituko dugun ez dakit, baina askotariko proposamenak egongo dira eztabaidan, Espainiako eta Europako hauteskundeak egingo dira, gure iniziatiba ere hor egongo da... Garrantzitsua izango da benetan datorren urtea eta gizarteak indar guztia atereaz gero, baliteke gauzak alde batera edo bestera argitzea.

**Zuk esana da ez zaudetela ez Ibarretxe Planaren ez beste alderdiek egindako proposamenen alde. Beraz, zer da Elkarrik defendatzen duena?**

Une honetan garrantzitsuena eztabaida prozesua da. Eusko Jaurlaritzaren plana aurkeztu da, eta, horrez gain, Alderdi Sozialistak badu bere posizionamendua, *Estatutu gehiago* deitua; EAk, Ezker Batuak, Aralarrek eta ezker abertzaleak ere beraien proposamenak aurkeztu dituzte. Beraz, guri ez dagokigu esatea zein den proposamenik egokiena. Baina guretzat eztabaida hau erabat garrantzitsua da bigarren aukera baten aurrean jartzen gaituelako. Bigarren trantsizio baten atarian gaude, eta hori sekulako aukera da arazoa behin betiko konpontzeko; aukera hori aprobetxatu egin behar da. Gure lan eta ahalegin guztiak bideratuko ditugu elkarrizketa eta eztabaida prozesua akordioan buka dadin.

**Nola ikusten duzu Bake Konferentzia horren osteko Euskal Herriaren etorkizuna?**

Bake Konferentzia bukatu eta gero adostasun baten inguruko Euskal Herria nahi genuke guk, baina hori, seguru aski, gehiegi eskatzea da. Beraz, konformatuko ginateke, puntu horretara iritsita, helburu hori lortzeko ekarpen polita egitearekin.

**Bake Konferentziaren proiektuan diharduzue orain buru-belarri, baina zuk zeuk urte asko daramatzazu Elkarrin lanean. Zer eman diozu Elkarriri? Eta Elkarrik zer eman dizu?**

Nik Elkarrin hasieratik jardun dut, 11 urtez, eta Ekarriri dedikazioa eman diot, ordu asko; eta nire barruan neukan onena ematen saiatu naiz. Elkarrik niri, berriz, askoz gehiago eman dit. Gauza asko erakutsi dizkit, bai pertsonalki baita maila sozialean ere. Besteak beste, erakutsi dit gatazkak konpontzeko edo beste pertsonekin harremanak izateko ez dutela balio eskema sinpleek, gaiztoak eta zintzoak bereizten dituzten eskemetan erortzea ez dela irtenbidea. Izan ere, arazoei konponbidea bilatzeko hortik haratago joan behar da.

# Zabalik



JOSEBA EZPELETA

## Aktualitatea

**AEDren 20. urteurrenaren gainean artikulu bat egiteko eskatu didate; gai bezala, etorkizunaz hitz egiteko edo 20 urtetan zehar egindakoaren balorazio bat egiteko proposatu didate. Ez diet kasurik egingo Goienako lagunei eta aktualitateaz jardungo dut.**

**Euskalgintzan jardutea eta euskara sustatzea delitu bihurtu gura dute, terrorismoarekin parekatzeraino heldu dira eta, testuinguru honetan, inoiz baino gehiago, euskalgintzak babesa behar du, bai gizartearena, bai eragileena eta baita administrazioarena ere bai. Babes horren adinakoa izango da lanerako izango dugun lasaitasuna.**

**Espainiarrak Madrilen, frantsesak Parisen eta txinoak Pekinen "lasai" bizi diren bitartean, euskaldunok ez dugu "lasaitasun" bera; beti daukagu plusen bat, dirutan dela, esfortzutan dela. Euskalgintzaren aurkako azken bidegabekeriaren ondoren, Donostiako kaleak euskaltzalez bete ziren berriro, baina nago horretara ez ei den mugatu erantzuna, berriro ere. Miren Azkaratek, bere inpotentzia telebistan azaldu zuen aurrekoan, oraingoz azkena den erasoaren ondoren. Beste kasu batzuetan, laster jaurtitzen dituzte proposamenak eta neurriak hartzeko ideiak; kasu hauetan, berriz, poker aurpegia jartzera mugatzen dira.**

**Eta ETB edo Eusko Ikaskuntza ixten badituzte? Orduan zer egingo dugu? Orduan bai?**

**Aktualitateak bidegabekeriak ekartzen dizkigu, Xabier Oleagak zein Enrike Letonak jasaten dituzten bidegabekeriak eta, bitartean gu, kaleak jendez betetzen. Ez daukagu beste erantzunik? Ezin dugu beste erantzunik eman? Agintarien funtzioetako bat herritarrak babestea izanik, nola babestuko gaituzte? Ala AEDk ere terrorismoa egiten du?**

# Gutunak

## San Joxepe elkartea adarra joten?

Nire eskuetara heldu da Bergarako San Joxepe erretiratuen elkartearen gainean Xabier Ibarzabalek idatzi duen liburua. Izenburua da *Hogar del jubilado-Asociación San Joxepe: aportaciones a la historia social de Bergara 1972-2003*. Liburuaren atarikoan, eskerrak emateko, San Joxepe elkarteak idatzitako testuan esaten da Bergarako erretiratuen egoitzaren historia jaso nahi izan dutela lan honetan, Aitonak elkartea sortu zela 30 urte betetzen direnean.

Liburuak 250 orrialde ditu eta batik bat erretiratuen alorrean 1970. urtetik hona Bergaran egindako lana aztertzen du egileak. Errepasoa hasten du hirurogeita hamarreko hamarkadako giza taldeen sorreran (Alkartu-nai, Bergarako Kultur Ekintza…), Bergarako UNEDen sorreran, eta abar, herriko erretiratuek egin zuten lanarekin. Jarraitzen du laurogeita hamarreko hamarkadan San Joxepe elkartearen sorrerarekin, eta amaitzen du elkarte horrek gaur egunera arte egindakoarekin. Orririk gehienak testu hutsezkoak dira, baina atzeko orrietan hainbat argazki jasotzen dira azken 30 urteotakoak: hasi Aitonak elkartearen inaugurazio ekitaldiko argazki batekin, 1972koa, eta bukatu Bergarako erretiratuen egoitzako informatika-gelan orain dela gutxi ateratako beste batekin.

Liburua interesgarria da ezagutzeko azken 30 urteotan herriko erretiratuek egin duten lana. Baina nabarmendu nahi dut huts bat: liburua gazteleraz idatzita dago, hasieratik amaiera arte, izan ezik Imanol Sorondo apaizak, sasoi batean Bergarako Santa Marinako parrokoa izan zenak, idatzitako hitzaurrea: zortzi orrialde euskaraz eta gazteleraz idatziak; beste guztia, gazteleraz.

Eta honek kezka, tristura eta amorrua sorrarazi dizkit. Izan ere, lotsagarria iruditzen zait herriko erretiratuek bultzatutako liburu bat, Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundu duena, gaztelera hutsez idatzita argitaratzea. Matia Fundazioak eta Erein-ek argitaratu dute liburua. Uste dut, batetik, ez dela kontuan hartzen Bergarako erretiratuen %80 inguru gauza dela euskaraz berba egin eta irakurtzeko eta, bestetik, barre egitea dela erakunde ofizialei –Udala, Diputazioa eta Jaurlaritza–, ikastola eta ikastetxeei, euskaltegiei, euskara elkarteei, tokian tokiko hedabideei –*Berrigara*, GOIENKARIA…– eta beste hainbat talde, elkarte eta gizabanakori, ez direlako aintzat hartzen azken urteotan euskararen alde egin duten lana eta esfortzua.

Horregatik eskatu nahi nieke San Joxepe erretiratuen elkarteko arduradunei, sentikortasun gehiago erakuts dezatela euskararekiko eta errespetu gehiago euskararen normalizazioaren alde lanean diharduten guztiekiko. Zertan ari gara, bada?

OLATZ OLASO
Bergara

## Dagokionari

Beharbada, ez da hau modurik egokiena arazoa konpontzeko, baina gaur San Viator Txiki Ikastolaren aurrean *udaltzain* batekin gertatu zaidanak bultzatu nau honetara.

Gaur, eguerdiko ordu bi eta erdietan nire hiru urteko semea ikastolara eraman dut autoz, eta jakingo duzuen moduan, San Viator Txikiko inguru horiek, Unibertsitatea dela eta, oso gaizki daude aparkalekua aurkitzeko. Beraz, *doble filan* eta emergentziako argiak piztuta, minutu batez utzi nahi izan dut autoa, hau da, semea autotik atera eta ikastolan uzteko denboran, besterik ez. Baina, hara hor, non hurbildu zaidan herriko harroputzena udaltzain jantzita, eta lepoa luzatuz, soinburuen artetik ateratzeko arriskuan, bere eskuineko besoa altxatuz, ezetzaren keinua egin dit. Azalpen bat emateko aukerarik ere ez dut izan.

Bai, urte asko dira gidatzeko txartela lortu nuela eta bai, badakit *doble filan* ezin dela autorik utzi, baina badakit ere, nire bost hilabeteko semearekin Iturripetik paseatzera irteten naizenean ez nukeela aulkitxoa errepidera jaitsi beharko Unibertsitateko ikasleek beraien autoak, egun osoz, espaloietan aparkatuta utziko ez balituzte.

Beraz, gaurkoak nire onetik atera banau, ez da izan autoarekin bueltaka ibili eta umea ikastolan nola utzi asmatzen ez nuelako, nik ere, herriko espaloietan aparkatzea baimentzen duen zerga berezi hori pagatu nahiko nukeelako baizik.

Ironiak alde batera utzita, koherentzia apur bat besterik ez dut eskatzen, eta *udaltzain* horri, aspaldi buruan nerabilen idatzi hau egitera bultzatu nauelako: "mila esker, aizu!".

JASONE GIRALDO MENENDEZ
Arrasate

## Ikasle eguna Alegian, azaroaren 15ean

Aurtengoan, Ikasle Abertzaleak-ek 15 urte betetzen ditu, eta urteurren hori gogoratzeko hainbat gauza antolatu ditugu kurtsoan zehar. Agian azpimarragarriena Alegian antolatu dugun Ikasle Eguna da, non egun osoan zehar kontu ezberdinak egongo diren.

Goizeko 12etan hasita harrera ekitaldia, solasaldi bat IAren hamabost urteei errepasoa eginez, bazkari herrikoia pilotalekuan (sarrerak bertan erosi behar dira), bertso saio punta-puntakoa (Amets Arzallus, Jon Maia, Igor Elortza, Inaki Apalategi eta Inaki Gurrutxaga), triki poteoa, kale animazioa... Horiez gain, manifestazioa egongo da 19:30ean eta berau amaitzean ekitaldi politikoa.

Gauean aldiz, kontzertu mundiala egongo da futbol zelaian muntatuko den karpa erraldoian. Gau osoan zehar egongo da musika, Hamlet, Habeas Corpus, O`Funkillo, Banda Basotti, Su Ta Gar eta Berri Txarrak taldeekin. Sarrera 12 euro izango da aurrez eta 15 bertan. Debagoienean ere sarrerak erosi daitezke,

Bergarako Arrano eta Arrasateko Irati tabernetan. Ikasle Abertzaleak-etik guztiok animatzen zaituztegu hilaren 15ean Alegian egotera. Zahar nahiz gazte, ikasle nahiz langile... denok daukagu hitzordua Tolosaldeko herritxo horretan. Autobusak ere izango dira erosoago hurbildu ahal izateko.

Hamabost urte oraina irauliz, hamabost urte geroa eraikiz. Hamabostean guztiok Alegiara!

IKASLE ABERTZALEAK
Debagoiena

## Asier Altunak, bingo!

*Del Olmo autoak* Asier Altunaren artikulua (azaroaren 7ko GOIENKARIA) irakurri dot eta azken asteotatik buruan bueltaka deukodana argitzen agian lagunduko deusta. Kontua zera da: hainbat liburuzain, kazetari, argitalari, banatzaile eta kulturgileren bahiketen erreskateen kopuruak ikusita, milaka euro horiek guztiak nora doiazan jakiteko min handia deuko-

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



dala. Ikastolak edo euskaltegiak finantzatzeko ez dituzte erabiliko ba, nahiz eta erregimenaren ministro batzuk "euskararen alde" sutsuki aritu azken bolada honetan.

Asierrek ustezko epaile ezagun batzuk "auto enpresa multinazionala" eratzen ei dabilzala kontau deusku. Bingo! Horretako izango da orduan hainbeste diru. Banengoen ba neu!

Japoniarrak ikara daitezela, martxa honetan oso litekeena baita *Zumarrarena-Garçon autoak* laster munduko *number one* izatea.

Oraindino ulertzen ez dodana da ia zergatik dagozan auto determinazinoaren aurka.

IÑAKI PEÑA
Bilbo

## Erlijioa eta inposaketak

GOIENKARIA aldizkariaren 128. zenbakian, Anjel Bergaretxek idatzitako artikulua irakurtzeko aukera izan dut, Aretxabaletako lagun on batek zuzen bidaltzen baitizkit ale guztiak. Inolako eztabaidan sartu nahi gabe, bere iritzi batzuk sortu didaten harridura adierazi nahi nuke, besterik gabe.

Dio Anjelek, erlijiorik gabeko heziketa bat "arrazionalagoa" dela. Badirudi, erlijioaz hitz egiterakoan, gizasemea, bere izaera, nortasuna, pentsaera, sentiberatasuna, historiarekin zer ikusirik ez duen zerbaitetaz ari garela. Kontuan hartu behar du gure lagunak, gizakia, ez dela arrazoi hutsa, bestelakoan bihotzetik irteten zaizkion sentimendu eta desioak onartu ezinak izango lirateke, arrazionalak ez direlako. Zorionez, gaur egungo antropologo gehienek, gizatasunaren adierazgarririk nagusiena maitatzeko duen ahalmena dela diote; eta maitasuna, ez da arrazoi kontua soilik. Heziketa bat ematerakoan, ezin daiteke kontutan hartu bakarrik gizakiak jakiteko duen ahalmena, behar beharrezkoa da, baita ere, heziketa integrala eskaintzea izan nahi ezkero behintzat, pertsonaren barren-bizitzaren premiei ere erantzutea.

Ados nator Anjelekin diru publikoaren erabileraz dioenarekin. Baina ez zait iruditzen "eskolak katekesi bihurtzea" denik inoren helburu. Ez nago konforme erlijioko klaseak katekesi saio bihurtzearekin. Ikastetxetako erlijio asignatura ez da jarraitzaileak egiteko, baizik eta giza historian hain garrantzitsua izan den zerbaiti buruz datu batzuk eskaintzea; gaur egungo gizartea nola eratu den jakin eta ulertu ahal izateko ezinbestekoa den instrumentu edo tresna bat ematea.

Anjelek dio ateismoaren sorrera eta garapenean inposaketa dagoela. Badirudi, berak eginiko analisia Espainiako herrialdeetara mugatzen dela. Izan ere, Europako beste herrialde guztietan, ez dute izan inolako diktadorerik berrogei urteetan herria menperatuaz, baina ateismoaren kopuruak, gure artean ikus daitezkeen berdintsuak dira. Gainera, aspaldian ez da ateismoari buruz ezertxo entzuten eta ez ere idazten. Gaur egungo soziologoek, ateismoa aspaldi desagertu zela diote. Erlijioa aldatu egin da, hori egia da: gaur egun erlijio ofizialak krisian daude; ez dago egiarik, baizik bakoitzak bere egia du; ez dago jainko bakarrik, baizik eta bakoitzak bere idoloak ditu: alderdia, abeslariak, kirolariak, tarota, astrologoak… Erlijio ugari eta ezberdinak sortu dira, bakoitzaren behar eta sentimenduen arabera.

Erlijioak duen krisiari buruz ere zerbait badio Anjelek, badirudi, krisi horren sustraian, erlijio bakarra izatean dagoela. Berriro ere esan behar diot harantzago begiratu behar dela gauzak objektiboki ikus ahal izateko: ez ahaztu XVI. gizaldian, Europan, Eliza Katolikoa zatitu egiten dela eta Eliza Luteranoa eta Kalbinista sortzen direla. Europan, beraz, ez da bizi izan guk hemen, diktaduran izan dugun egoera, baina elizaren krisia, ez bakarrik Katolikoarena, baizik eta beste eliz kristau guztiena, orokorra eta nagusia da.

Bukatzeko, iruditzen zait "inposaketa" hitza gehiegitan eta desegoki erabiltzen dugula. Gure gogoko ez den guztiari inposaketa deitzen diogu eta, horrela, mesprezatu eta baztertu. Gaztetxo batek, inposaketa ikus dezake egunero ikastetxera joan behar izatea, erosketak beti leku berean egin behar izatea ere inposaketa izan daiteke, guraso eta familia batzuk, ikastetxeari, beren haurrei kristau heziketa emateko eskatzea ez da inposaketa, demokrazia baizik. Egia da independentzia behar dugula, barrenean ditugun mamu ugariren kateetatik askatzea da independentzia lortzeko beharrezko den lehen pausoa.

Nire agurrik beroena Anjeli. Zerbaitetan begirune izan ez badiot, barka dezadala.

ANTONIO ASTIGARRAGA
Bartzelona

## Espaloiaren gainean

EAJko eta Aralarreko zinegotziek Espaloia kultur guneari buruz urriaren 31ko GOIENKARIAn esan zutenari erantzunez, Elgeta Auzolanian taldekook ondorengoa adierazi nahi genuke:

- Hauteskunde programan adierazi genuen bezala, Elgeta Auzolanian ez dago Espaloia proiektuaren aurka. Uste dugu Espaloia garrantzitsua izan behar dela herriko kultura sustatzeko orduan. Guk bultzatzen ez duguna eta bultzatuko ez duguna da Elgetako kultura ekitaldiak taberna baten irabazien edo galeren menpean izatea.

- EAJk eta Aralarrek beraien hauteskunde programetan herritarren parte hartzea ezinbestekotzat jotzen zuten, eta horixe da hain zuzen ere guk eskatzen duguna: proiektua aurrera eraman aurretik herri-batzar bat egitea, tabernaren eta Espaloiaren baldintzak, bideragarritasun plana, kultur programa eta abar, herritarrei azalduz eta herritarren iritzia jasoz, ez dadin herriaren izenean baina herriak jakin gabe aurrera eramandako proiektu bat izan.

- Kontuan hartu behar da datorren urtetako irabazi-asmorik gabeko inbertsiorik handienetakoa dela Auditorioarena, beste proiektu kultural guztiak mugatuz.

- Azkenik, Udaleko ordezkaritzarik baxuena izan arren, Elgeta Auzolanian taldekook ere badugu herriko proiektuen aurrean geure iritzia emateko aukera; herritar batzuk gu aukeratu gaituzte beraien udal ordezkari bezala, eta gainontzekoek bezala badute beraien hitza herrira zabaltzeko aukera.

ELGETA AUZOLANIAN
Elgeta

## Pesa Stop

Zergatik? Ez da posible! Aski da! Debagoineneko biztanleak nazkatuta gaude Pesa autobus konpainiak eskaintzen digun zerbitzuarengatik ibar honetan. Nire haserrea eta beste hainbat erabiltzailerena argi utzi nahi dut, herri honetako agintariek behingoz arazo honen aurrean esku hartzea egin dezaten, ezin dugulako horrela segi. Uda aurretik zerbitzua eskasa baldin bazen, uda ostekoa ezin da hitzez azaldu.

Hala ere, adibide batzuk jarriko ditut. Esaterako, uda aurretik Donostiara joateko bertan ikasi edo lan egiten dugunok, goiz erdi partera 10:15ak inguruan autobus bat genuen; orain goizeko 08:20 eta 13:20ak bitartean ez dugu nola joan, eta bueltatzeko orduan 15:00etakoak agur esan digu.

Bilbora doazen autobusen egoera oraindik eta kaskarragoa da eta Arrasatetik Zumarragara joan nahi baduzu, astean zehar autobus bakarra dago. Nola da posible tren geltokirik hurbilena aldi berean hain urrun egotea? Gainera, zapatu gauetan herri horretara hiru ditugu. Badaezpada Oñatikoen egoera ez dugu azalduko…, hai na bai dela kalbarioa!

Bueno, eta prezioen kontua badaezpada aipatu ere ez, ulertezina delako Donostiara doan autopista merkatzea baina guri, berriz, prezioak igotzea. Aski da! Egin ezazue zerbait egoera jasanezin honen aurrean. Mesedez!

MIKEL URIBARREN
Arrasate

## Enrike Letona etxera!

Ezaguna da gure herritarra den Enrike Letonarekin gertaturikoa. Maiatzaren 16an aske geratu zen, espetxe zigorra oso osorik bete ondoren. Beraz, presoak aske, etxean, daudenean ere, haien eskubideak ez direla errespetatuak izaten argi eta garbi geratu da bere kasuarekin. Izan ere, uztailaren 31n Enrike atxilotu eta Audientzia Nazionalera eraman zuten, 1981eko sumario bategatik.

Orain ez gara sumario honen nondik norakoak azaltzen hasiko, horren berri nahikoa egon delako. Oraingoan Arrasateko Etxerat elkartetik deialdi zabala egin nahi dugu gure senide eta lagunen eskubideen defentsan. Espetxean dauden bitartean gure babes osoa eman eta adierazten diegu. Aske geratu eta berriz ere etxean ditugunean, ostera, beraien konpainiaz, maitasunaz, berotasunaz disfrutatzen ari garenean berriz ere espetxeratzen dituzte gorrotoa eta mendekua izanik arrazoi bakarrak.

Hau dela-eta, zapatuan, hilak 15, arratsaldeko 7etan Arrasateko Herriko plazatik abiatuta manifestazio isila egongo da. Enrike askatzeko Bilguneak antolatu du manifestazioa eskaera bakarrarekin: Enrike etxera!. Honi guztiari amaiera emateko zuen laguntza ezinbestekoa dugulako, bertan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, Enrikerekin egiten ari direna izugarrizko bidegabekeria delako.

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

## *Abizenen idazkera: Euskaltzaindiak dioena zorrotz bete behar da?*

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA** Eneko Azkarate
**ERREDAKZIO KONTSEILUA** Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
**ADMINISTRAZIOA** Agurtzane Gaintzarain, Arantzazu Arana, Iratxe Bengoa
**SAILETAKO ARDURADUNAK** Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
**PUBLIZITATEA** Amaia Mundiñano, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**PRODUKZIOA** Iban Arantzabal
**TESTUEN ZUZENKETA** Sergio Azkarate
**HARPIDETZA ETA BANAKETA** Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**LEHENDAKARIA** Estepan Plazaola
**ZUZENDARI NAGUSIA** Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# 455 debagoiendar Donostiako helmugan

## Behobia eta Donostia arteko 20 kilometroak antxintxika giro herrikoian egin zituzten

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Pozik azaldu ziren Behobia-Donostia lasterketaren antolatzaileak 39. edizioaren amaieran. Antolatzaileak ez ezik Debagoienean ere pozik egoteko motiborik ez da falta. Izan ere, ibarreko 455 parte-hartzailek amaitu zuten proba, tartean 21 emakumezkok.**

Guztira, 11.200 korrikalaritik gora izan ziren gure inguruan garrantzitsuena den Behobia-Donostia herri lasterketan.

Debagoiendarrek maila bikaina eman zuten, bai partaide kopuruari dagokionez, baita emaitzei begiratuta ere. 455 izan dira, zerrenda ofizialen arabera, aurten maratoi erdia amaitu duten ibarreko antxintxikalariak.

**IBARREKOAK, AURREAN**

Berez zarauztarra bada ere, ibarrean egiten du lan Iratxe Aranburuk, proba amaitu zuen lehenengo emakumeak. Bergarako Udaleko kirol teknikaria iaz ere lehenengo izan Behobia-Donostian eta aurten bi minutuan hobetu du bere marka. Helmugara heltzeko 1 ordu 13 minutu eta 42 segundo behar izan zituen.

Oñatiar bat, Ritxar Fernandez, izan zen helmugara iritsi zen lehen gipuzkoarra. Iaz denbora zehatza jakiteko txipa etxean laga zuela-eta ez zuen parte hartzerik izan proban, eta aurten lesio bat dela medio podiumetik kanpo geratu da. Sailkapen orokorrean bosgarren tokian amaitu du 1 ordu, 5 minutu eta 40 segundoko denborarekin.

Behobia eta Donostia arteko 20 kilometroak egiteko bi ordu baino gehiago behar izan zituenik ere egon zen domekan. Hala ere, ikusleek emandako animuekin nekeari aurre egin eta helmugara iritsi ziren askok eta askok datorren urtean ere parte hartuko dutelakoan gaude. Ea parte-hartzaileen marka gainditzen den hurrengoan

**IRATXE ARANBURU** / LEHEN EMAKUMEA BEHOBIA-DONOSTIAN

## “Herri probak entrenamendu moduan hartzen ditut datozen lasterketetarako”

**Bergarako Udaleko kirol teknikari zarauztar honek bigarren aldiz zapaldu du Behobia-Donostiako podiuma. Helmugan lehen emakumea izan da, iazko marka bi minutuan hobetuta.**



**Bigarren urtez Behobia-Donostia lasterketako helmugan lehen emakumea izan zara. Pozik emaitzarekin?**

Aurrez ikusle bezala joaten nintzen eta iaz hartu nuen parte lehen aldiz Behobia-Donostian. Bestelako herri lasterketetan ere jardun izan dut, baina laburragoetan. Iaz maratoi erdi batean parte hartu nuen eta gai nintzela ikusita Behobiakora joan nintzen. Hala ere, federatu mailan txapelketetan korrika ere aritzen naizenez, herri probak entrenamendu modura hartzen ditut. Baina garaipen guztiek ematen dute poza eta igandekoarekin ere gustura nago.

**Nolakoa izan zen igandeko proba?**

Behobia-Donostia nahiko lasterketa *bihurria* da berez, eta iaz ibilbidea sekula egin gabea nintzenez esperientzia falta hori ordaindu behar izan nuen. Aurten, ordea, lehenengo eta bigarren zatian erritmo bertsuari eutsi diot eta buruarekin jokatuz egin dut korrika. Muskularki ez nuen uste bezain ongi amaitu; arnas aldetik, berriz, ongi aurkitu nintzen.

**Iazko denbora hobetzea zen zure asmoa eta lortu duzu, ezta?**

Bi minutu gutxiago behar izan nituen. Horrelako probetan helburua ez da irabaztea, eta marka hobetuz gero pozik. Tituluak jokoan diren lasterketetan markak ez du inporta; garaipenak bai, ordea.

### “Federatu mailako txapelketetan ahalik eta mailarik onena ematea da nire hurrengo erronka”

**Zein dira zure hurrengo erronkak?**

Herri probetan parte hartzeak muskularki prestatu nau eta kroseko denboraldian hobeto sartuko naiz. Nire asmoa federatu mailako lasterketetan nire maila erakustea da. Udaberri eta uda aldera txapelketetan hartuko dut parte eta ahalik eta maila onena eman nahi dut.

**RITXAR FERNANDEZ** / HELMUGAN LEHEN GIPUZKOARRA

## “Lasterketako azken bost kilometroetan sei aldiz gelditu nintzen lesioa zela eta”

**Oñatiko atletak aurten podiumean egotea zuen helburu, baina lesio bat dela medio bosgarren tokian amaitu zuen proba. Hala ere, lehen gipuzkoarra izan zen Ritxar Fernandez.**



**Podiumean egotea zen zure asmoa, baina lesio batek eragotzi egin zizun.**

Helmugara iristean sentsazio gazigozoa izan nuen. Izan ere, 15. kilometroan, lesio bat dela medio, erritmoa jaitsi behar izan nuen. Bigarrenarengandik oso gertu nindoan eta asmoa Mirakruz gainean erasotzea bazen ere, atzetik zetozen biek aurre hartu zidaten eta asko kostatu zitzaidan helmugara iristea. Azken bost kilometroetan sei aldiz gelditu nintzen.

**Lehen gipuzkoarra izan zara.**

Bai, hala da. Gainera, aurten lehen gipuzkoarrari Diego Garcia saria eman diote, bere irudiaren erreplika bat tamaina txikian. Beraz, esanahi berezia zuen Diego ezagutu zuen norbaitek eskuratzea.

**Lesioa izan zenuen. Denbora luzea beharko al duzu sendatzeko?**

Aspaldiko lesio bat da, Sevillako maratoian egindako kontraktura bat. Hori dela eta, entrenatzeko plantilla berezi batzuk erabiltzen ditut, baina lasterketan erabiliz gero kalte egiten didate. Beraz, plantillak erabili ezean sendatuta behar luke lesioak. Jadanik hasi naiz entrenatzen eta denborarekin guztiz sendatuko da.

**Aurten ez zaitugu podiumean ikusi. Beharbada datorren urtean?**

Horretan saiatuko naiz. Aurten aukera asko nituen afrikarrik ez egonda podiumean amaitzeko, baina ezin izan denez…

### “Aurten afrikarrik ez egonda aukera asko nituen podiumean amaitzeko, baina ezin izan da”

**Herri lasterketetan ez ezik federatuekin ere lehiatzen zara, ezta?**

Federatuta nago eta kros denboraldian hainbat lasterketa egiten ditut federatu mailan. Baina batez ere asfaltoan jarduten dut, maratoi erdiak, 10 kilometrokoak… Beraz, krosak beste karreretarako prestakuntza moduan hartzen ditut.

MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura
KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.
EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatua
Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

# Debagoiendarren sailkapena eta denbora, herrika

ITURRIA: FORTUNA KIROL ELKARTEA

## Antzuola

| | | |
|---|---|---|
| 270 | Aitor Larrea Soraluze | 1:16:15 |
| 271 | Iker Larrea Soraluze | 1:16:16 |
| 960 | Igor Labaien Olasolo | 1:23:35 |
| 1408 | Andres Arbulu Olabarria | 1:26:11 |
| 2146 | MikelMontori Zabaleta | 1:29:40 |
| 2154 | Mikel Etxaniz Alberdi | 1:29:41 |
| 2898 | Iñaki Legorburu Igarza | 1:32:53 |
| 4171 | KikeSantos Celayeta | 1:37:54 |
| 4425 | Ion Valle Bravo | 1:38:49 |
| 4466 | Modesto Caceres Martin | 1:38:56 |
| 4527 | Jose Mari Alberdi Zangitu | 1:39:09 |
| 6657 | Raul Coma Niño | 1:47:38 |
| 6673 | Luis Herzog Rodriguez | 1:47:40 |
| 6937 | Oskar Velarde Bernal | 1:48:53 |
| 9048 | Leire Larrea Solaruze | 2:00:02 |
| 10069 | Beñar Kortabarria Olabarria | 2:12:11 |
| 10071 | Bittor Arbulu Olabarria | 2:12:13 |

## Aramaio

| | | |
|---|---|---|
| 894 | Aitor Kortazar Alkotz | 1:23:05 |
| 1176 | Aitor Arana Arexolaleiba | 1:24:56 |

## Aretxabaleta

| | | |
|---|---|---|
| 991 | Aitzol Okina Juldain | 1:23:48 |
| 1234 | VictorSan Jose Garcia | 1:25:09 |
| 1272 | Igor Guenetxea Mondragon | 1:25:26 |
| 1281 | Kepa Fernandez De Arroiabe | 1:25:32 |
| 1354 | Antonio Merruzco Carrasco | 1:25:53 |
| 1357 | Andoni Miguel Quintero | 1:25:54 |
| 1543 | Asier Barrainkua Sagastasoloa | 1:27:01 |
| 1574 | Unai Kerejeta | 1:27:08 |
| 1909 | Roberto Etxeaundia Garziaetxabe | 1:28:46 |
| 1954 | Jon Iñaki Larrabe Atela | 1:28:56 |
| 1984 | Oier Etxebarria Gutierrez | 1:29:05 |
| 1994 | Joxe Garai Elizaran | 1:29:07 |
| 2038 | Javier Irure Espin | 1:29:17 |
| 2068 | Gorka Iza Miguel | 1:29:23 |
| 2528 | Jon Urtaza Agirrezabal | 1:31:23 |
| 2874 | Andoni Arkauz Lazkano | 1:32:47 |
| 3028 | Inaxio Garro Iturrospe | 1:33:25 |
| 3139 | Eriz Zumarraga Azkarate | 1:33:54 |
| 3194 | Peio Gomez Zabala | 1:34:08 |
| 3911 | Imanol Luengo Gabarain | 1:36:58 |
| 3200 | Jurgi Lopez De Arkaute Guridi | 1:34:09 |
| 3628 | Pedro Mari Azkargorta Belategi | 1:35:49 |
| 4033 | Manex Larrinaga Perea | 1:37:26 |
| 4130 | Borja Garitaonaindia Mugica | 1:37:47 |
| 6181 | Luis Nieto Hidalgo | 1:45:42 |
| 4273 | Javi Garcia San Martin | 1:38:18 |
| 4617 | Ohier Garcia Etxabe | 1:39:26 |
| 4706 | Ander Hernandez Azizu | 1:39:42 |
| 4713 | Roberto Azkarate Zabalo | 1:39:45 |
| 6426 | Joxe Aranzadi Martin | 1:46:42 |
| 6692 | Mikel Roldan Ugarte | 1:47:45 |
| 6693 | Ion Arrese Iturbe | 1:47:45 |
| 6833 | Fernando Zubillaga Elorza | 1:48:25 |
| 6962 | Eneko Iriarte Arenaza | 1:49:01 |
| 7111 | Jose Revuelta Dominguez | 1:49:40 |
| 7117 | Miguel Uribetxebarria Galparsoro | 1:49:41 |
| 7686 | Juan Antonio Uribe Uriarte | 1:52:28 |
| 8227 | Aitor Urrutia Yurrebaso | 1:55:14 |
| 8455 | Antxon Del Rey Galan | 1:56:29 |
| 8578 | Leire Guenetxea Mondragon | 1:57:16 |
| 8586 | Iñigo Arkauz Maiskaran | 1:57:18 |
| 8728 | Julen Zuazabeitia Olabe | 1:58:02 |
| 8878 | John Nelson | 1:58:57 |
| 8903 | Eneider Sukia Imaz | 1:59:07 |
| 8905 | Aitor Aizpuru Borda | 1:59:07 |
| 9558 | Maider Sarriegi Galparsoro | 2:04:32 |
| 9698 | Alvaro Hurtado Caballero | 2:05:58 |

## Arrasate

| | | |
|---|---|---|
| 46 | Zuhaitz Ezpeleta Iturbe | 1:09:20 |
| 179 | Jon Aperribai Uribeetxebarria | 1:14:16 |
| 249 | Jose Ramon Gutierrez Zillaurren | 1:15:52 |
| 340 | Xabier Iribecampos Zuazabeitia | 1:17:25 |
| 408 | Victoriano Suarez Redondo | 1:18:15 |
| 594 | Eneko Urrizalki Jauregi | 1:20:17 |
| 689 | Kepa Larrea Beldarrain | 1:21:19 |
| 751 | Juan Luis Murgia Uribeetxebarria | 1:21:53 |
| 915 | Iosu Juan Llodio | 1:23:17 |
| 929 | Jose Gabriel Urizar Murgoitio | 1:23:24 |
| 953 | AitorZuñiga Romeo | 1:24:15 |
| 1043 | Ruben Ramos Romeo | 1:24:07 |
| 1082 | Luis Usatorre Arantzabal | 1:24:20 |
| 1144 | Jesus Mari Zabarte Arregi | 1:24:44 |
| 1171 | Iban Vitoria Moral | 1:24:54 |
| 1203 | Iosu Pereda Lezeta | 1:25:02 |
| 1243 | Urtzi Axpe Uribeetxebarria | 1:25:16 |
| 1398 | Jose Javier Ortuoste Ibarra | 1:26:09 |
| 1584 | Amalio Galan Gomez | 1:27:13 |
| 1609 | David Gomez Garcia | 1:27:19 |
| 1715 | Unai Ugarte Beitia | 1:27:53 |
| 1768 | Jose Antonio Garcia Diestro | 1:28:06 |
| 1799 | Mikel Balanzategi Larreina | 1:28:15 |
| 1899 | Jose Ignacio Gaztañaga Bidaurreta | 1:28:44 |
| 1952 | Gorka Sudupe Lezeta | 1:28:56 |
| 2079 | Alberto Rodriguez Pinedo | 1:29:26 |
| 2168 | Edorta Aiastui Atxa | 1:29:47 |
| 2218 | Eduardo Zuñiga Romeo | 1:29:58 |
| 2226 | Iñaki Jauregi Bidaburu | 1:29:59 |
| 2316 | IvanAranguren Zubillaga | 1:30:23 |
| 2332 | Luis Mari Uribesalgo Leturiaga | 1:30:28 |
| 2410 | Javier Moreno Lacasa | 1:30:51 |
| 2428 | Ricardo De Castro Corral | 1:30:55 |
| 2491 | Agustin Uribarren Del Val | 1:31:13 |
| 2790 | Iñigo Agirre Gomez | 1:32:27 |
| 2839 | Marifran Alonso Casado | 1:32:38 |
| 2922 | Jon Errasti | 1:32:57 |
| 2978 | Danel Aiastui Berezibar | 1:33:11 |
| 3041 | Javier Ansoategi Etxebarria | 1:33:29 |
| 3065 | Mikel Arrese Mondragon | 1:33:36 |
| 3093 | Mikel Larrañaga Telleria | 1:33:42 |
| 3278 | Ruben Lopez Valor | 1:34:30 |
| 3444 | Juanjo Serrano San Julian | 1:35:07 |
| 3484 | Enrike Letona Biteri | 1:35:15 |
| 3654 | JabierArkonada Martinez | 1:35:56 |
| 3805 | Mikel Azparren Lopez | 1:36:32 |
| 3843 | German Gallastegi Ortiz De Zarate | 1:36:42 |
| 3888 | Aritz Barrutiabengoa Mendibil | 1:36:51 |
| 3946 | Xabier Mendialdua Axpe | 1:37:07 |
| 3975 | Iker Hernando Idigoras | 1:37:13 |
| 4002 | Jose Jurado Mesa | 1:37:20 |
| 4142 | Imanol Elorza Castillo | 1:37:49 |
| 4232 | Asier Agirre Larrañaga | 1:38:06 |
| 4246 | Lander Lopez Kortabarria | 1:38:10 |
| 4348 | Xabier Bergaretxe Zubizarreta | 1:38:33 |
| 4742 | Alejandro Altuna Elorza | 1:39:50 |
| 4748 | Marije Velasco Garcia | 1:39:51 |
| 4777 | Oier Talledo Baena | 1:39:58 |
| 4952 | Cesar Cenalmor Mayo | 1:40:37 |
| 5336 | Jon Arzuaga Mendiaratx | 1:42:03 |
| 5020 | Eduardo Casado Armentia | 1:40:53 |
| 5164 | Jesus Maria Goikoetxea Garralda | 1:41:27 |
| 5425 | Sergio Perez Aguilar | 1:42:23 |
| 5445 | Ortzi Arana Ezkurra | 1:42:29 |
| 5464 | Alberto Pereda Ibar | 1:42:35 |
| 5512 | Mikel Alkorta Uralde | 1:42:50 |
| 5515 | Andoni Ruiz De Azua Galdos | 1:42:50 |
| 5642 | Carlos Ros Garcia | 1:43:22 |
| 5656 | Oskar Barreno Fernandez | 1:43:27 |
| 5706 | Eliecer Mamut Escaño | 1:43:40 |
| 5753 | Enrike Mazmela Bolinaga | 1:43:50 |
| 5786 | Jesus Perez Montero | 1:43:57 |
| 5854 | Mikel Viguera Vazquez | 1:44:15 |
| 5908 | Jesus Mendiaratx Elexpuru | 1:44:27 |
| 5911 | IbonMoreno Lacasa | 1:44:27 |
| 6089 | Iosu Uriarte Biguri | 1:45:17 |
| 6157 | Iñaki Urrutia Garaitonandia | 1:45:35 |
| 6174 | Andoni Ozaeta Mendiaratx | 1:45:39 |
| 6188 | Julen Zabaleta Mendizabal | 1:45:43 |
| 6190 | Ihintz Bengoa Madina | 1:45:43 |
| 6192 | Alaitz Perez De Arenaza Iturbe | 1:45:43 |
| 6197 | Iosu Errasti Balanzategi | 1:45:43 |
| 6299 | Markel Zabala Bilbao | 1:46:13 |
| 6481 | Jorge Zabala Bilbao | 1:46:53 |
| 6483 | Rikardo Zubillaga Atxa | 1:46:54 |
| 6694 | Iker Arroyo Sanchez | 1:47:46 |
| 6703 | Raul Fernandez Manchado | 1:47:47 |
| 6738 | Asier Egidazu Garcia | 1:47:57 |
| 6767 | Juan Mari De La Maza Artola | 1:48:03 |
| 6829 | Gaizka Irasuegi Unzueta | 1:48:24 |
| 6895 | Premin San Pedro Larrañaga | 1:48:41 |
| 6944 | Edurne Balzategi Juldain | 1:48:55 |
| 6992 | Juan Carlos Martinez Hernandez | 1:49:08 |
| 7019 | Jon Alzelai Maiztegi | 1:49:17 |
| 7080 | Iñaki Abasolo Olazabal | 1:49:34 |
| 7081 | Juan Carlos Pascual Muñoz | 1:49:34 |
| 7161 | Amaia Arrieta Gonzalez | 1:49:59 |
| 7308 | Ion Basurko Sarasua | 1:50:32 |
| 7338 | Lander Lorenzo Uribarren | 1:50:41 |
| 7428 | Iñaki Egidazu Altuna | 1:51:03 |
| 7534 | Iban Hernando Idigoras | 1:51:38 |
| 7767 | Iñigo Zabala Bilbao | 1:52:56 |
| 7811 | M. Mari Agirreurreta Agirre | 1:53:07 |
| 7861 | Crispin Baldezate Salvador | 1:53:21 |
| 7940 | Aitor Urrutia Zarraoa | 1:53:42 |
| 8167 | Jon Agirre Agiriano | 1:54:48 |
| 8271 | Jose Luis Garcia Martin | 1:55:29 |
| 8247 | Ignacio Beltran De Gebara | 1:55:22 |
| 8420 | Iker Letona Apaolaza | 1:56:14 |
| 8588 | Igor Ansoategi Belategi | 1:57:18 |
| 8590 | Ion Iraola Belategi | 1:57:19 |
| 8742 | Jose Martin Muguruza Gonzalez | 1:58:10 |
| 8775 | Fernando Aiape Egidazu | 1:58:21 |
| 9136 | Alberto Aranegi Bedia | 2:00:38 |
| 9300 | Roberto Gutierrez Zillaurren | 2:02:08 |
| 9373 | Carlos Martinez Altuna | 2:02:40 |
| 9391 | Marisol Usatorre Arantzabal | 2:02:52 |
| 9504 | Pedro Mari Ruiz De Azua Galdos | 2:04:06 |
| 9956 | Josu Ugartetxe Pascual | 2:09:27 |
| 10113 | Mikel Gaztañaga Bidaurreta | 2:12:56 |
| 10235 | Lide Herrarte Pagaldai | 2:15:39 |
| 10325 | Eukeni Olabarrieta Uria | 2:18:58 |

## Bergara

| | | |
|---|---|---|
| 140 | Roberto Usabiaga Zurro | 1:13:01 |
| 172 | Steven MacGregor | 1:13:59 |
| 308 | JavierGarcia Alberdi | 1:16:56 |
| 315 | Javier Moreno Castelo | 1:17:02 |
| 317 | Jabi Ibarra Moñux | 1:17:05 |
| 439 | Aitor Sotil Maiztegi | 1:18:37 |
| 488 | Xabier Elkoro Fernandez | 1:19:12 |
| 504 | Joxa Kerejeta Lizarazu | 1:19:22 |
| 620 | Joxu Arana Oregi | 1:20:31 |
| 724 | AlatzLarrañaga Oregi | 1:21:40 |
| 868 | Iñaki Muxika Goikoetxea | 1:22:52 |
| 1169 | Aitor Garcia Arkauz | 1:24:54 |
| 1187 | Luis Alberto Elorza Lazpiur | 1:24:59 |
| 1201 | Iker Herran Hernandez | 1:25:02 |
| 1320 | Ion Unamuno Lekuona | 1:25:43 |
| 1332 | Unai Ugarte Etxeberria | 1:25:46 |
| 1336 | Xabier Patxi Garitano Gaminde | 1:25:47 |
| 1454 | Gorka Muxika Elorza | 1:26:29 |
| 1507 | Juan Marcos Alonso Castellano | 1:26:47 |
| 1651 | Joseba Moñux Biain | 1:27:32 |
| 1774 | Joseba Azkargorta Azkarate | 1:28:07 |
| 1811 | Haritz Anduaga Altuna | 1:28:19 |
| 2203 | Ibon Santos Mujika | 1:29:54 |
| 2233 | Eneko Lazkano Bikendi | 1:30:01 |
| 2411 | Igor Basauri Ganboa | 1:30:51 |
| 2432 | Martin Egaña Villar | 1:30:55 |
| 2478 | Iñaki Leturia Guridi | 1:31:09 |
| 2517 | Gorka Areitio Asurabarrena | 1:31:21 |
| 2605 | Joxe Balentziaga Larrañaga | 1:31:42 |
| 2770 | Javier Gomez Garcia | 1:32:21 |
| 2774 | Alex Familiar Etxeberria | 1:32:22 |
| 2891 | Gorka Gonzalez Galiot | 1:32:52 |
| 2941 | IñigoOlañeta Elexpuru | 1:33:02 |
| 2956 | Jose Luis Osinalde Ortiz De Zarate | 1:33:06 |
| 3070 | Arkaitz Mendizabal Gorrotxategi | 1:33:37 |
| 3273 | Gorka Cebrian Arregi | 1:34:28 |
| 3349 | Jose Ignacio Albisua Iraolagoitia | 1:34:46 |
| 3481 | Ibon Garitano Muruamendiaraz | 1:35:15 |
| 3563 | Juan Martin Elexpuru Arregi | 1:35:34 |
| 3655 | Iñaki Akizu Agirre | 1:35:57 |
| 3699 | Jesus Egino Zabaleta | 1:36:06 |
| 3905 | Andoni Alberdi Garaiondo | 1:36:56 |
| 3914 | Zigor Unzurrunzaga | 1:36:59 |
| 3965 | Ander Garitano Zuazolazigorraga | 1:37:11 |
| 4048 | Igor Urisabel Aseginolatza | 1:37:28 |
| 4091 | Luis Mari Alberdi Arizaga | 1:37:37 |
| 4178 | Kepa Leturia Eguren | 1:37:55 |
| 4279 | Iñaki Larrañaga Erregi | 1:38:19 |
| 4477 | Jose Manuel Lucio Fernandez | 1:38:58 |
| 4547 | Iñaki Etxaniz Alberdi | 1:39:13 |
| 4663 | Migel Angel Lazpiur Iturrikastillo | 1:39:34 |
| 4750 | Juan Fernando Azkonaga Arregi | 1:39:53 |
| 4788 | CarlosOrbea Askasu | 1:40:00 |
| 4812 | Gorka Arrieta Etxeberria | 1:40:06 |
| 4846 | Jesus Mari Iglesias Fernandez | 1:40:13 |
| 5047 | Ignacio Puertas Sebeal | 1:40:59 |
| 5270 | Iñaki Eguren Zornoza | 1:41:50 |
| 5414 | Carlos Lasa Alberdi | 1:42:21 |
| 5601 | Ion Ander Garitano Askasibar | 1:43:11 |
| 5602 | Aitor Elkoro Fernandez | 1:43:11 |
| 5611 | Javier Orbea Askaso | 1:43:14 |
| 5632 | Manu Diaz De Marcos | 1:43:19 |
| 5655 | Joxe Mari Gabilondo Millet | 1:43:27 |
| 5757 | Jesus Mari Galgañon Gomez | 1:43:52 |
| 5972 | Ramon Agirrezabal | 1:44:43 |
| 6093 | Alesander Odriozola Aldazabal | 1:45:18 |
| 6339 | German Alberdi Zangila | 1:46:22 |
| 6447 | Aitor Solaun Garaizabal | 1:46:46 |
| 6473 | Alfonso Romera Etxeberria | 1:46:52 |
| 6477 | Asier Garcia Beristain | 1:46:53 |
| 6490 | Josu Sudupe Agirre | 1:46:55 |
| 6724 | Aritz Beistegi Ugarte | 1:47:52 |
| 6783 | Jose Ramon Azkarate Askasua | 1:48:08 |
| 6806 | Iker Osa Alustiza | 1:48:15 |
| 6813 | Andoni Elkoro Mantzisidor | 1:48:18 |
| 6872 | Julian Zangitu Alberdi | 1:48:36 |
| 6906 | Mikel Odriozola Gonzalez | 1:48:45 |
| 6997 | German Lopez Moreno | 1:49:11 |
| 7050 | Roberto Merino Sierra | 1:49:25 |
| 7093 | Ibon Mujika Agirre | 1:49:36 |
| 7160 | Samuel Garcia Fernandez | 1:49:58 |
| 7235 | Mikel Irizar Igarzabal | 1:50:13 |
| 7238 | Jaio Manzanedo Gabilondo | 1:50:14 |
| 7281 | Aitor Usaola Garitano | 1:50:26 |
| 7301 | Jose Vicente Moya Iturriza | 1:50:30 |
| 7330 | Kristian Arantzabal Larrañaga | 1:50:40 |
| 7393 | Manu Larrea Arana | 1:50:55 |
| 7465 | Gorka Arantzabal Larrañaga | 1:51:14 |
| 7613 | Sabino Azkarate Leturia | 1:52:04 |
| 7653 | Eduardo Diaz Pizarro | 1:52:19 |
| 7671 | Iosu Otaegi Martin | 1:52:23 |
| 7676 | Roman Laskurain Aiastui | 1:52:25 |
| 7712 | Pepe Fernandez Basterra | 1:52:34 |
| 7834 | Ion Balentziaga Larrañaga | 1:53:14 |
| 7915 | Gorka Marzan Altube | 1:53:35 |
| 7955 | Jose Ramon Balzategi Muguruza | 1:53:48 |
| 7966 | Mikel Garitano Muruamendiaraz | 1:53:51 |
| 8145 | Unai Idiakez | 1:54:41 |
| 8171 | Alfonso Ena Elustondo | 1:54:51 |
| 8172 | Javi Borobia Martin | 1:54:52 |
| 8231 | Nora Olabide Larrañaga | 1:55:16 |
| 8498 | Fermin Najera Ortigosa | 1:56:46 |
| 8808 | Luis Angel Perez Noval | 1:58:32 |
| 9035 | Carlos Telleria Diana | 1:59:56 |
| 9042 | Jose Luis Elkoro Unamuno | 2:00:00 |
| 9058 | Iñaki Basterra Lapitz | 2:00:05 |
| 9301 | AsierMaure Bengoa | 2:02:08 |
| 9503 | Fernando Otaño Zabaleta | 2:04:06 |
| 10082 | Fernando Arrillaga Garate | 2:12:21 |

## Elgeta

| | | |
|---|---|---|
| 1416 | Jesus Mari Beristain Elezgarai | 1:26:14 |

## Eskoriatza

| | | |
|---|---|---|
| 486 | Igor Gorosarri Badiola | 1:19:11 |
| 1578 | Igor Lazkano Arana | 1:27:10 |
| 1367 | Asier Sologaistoa Agiriano | 1:25:56 |
| 1832 | Ion Leturiaga Letona | 1:28:26 |
| 1875 | Juan Manuel Martinez Remedios | 1:28:37 |
| 1945 | Iban Uribetxebarria Legorburu | 1:28:53 |
| 3608 | Jon Apraiz Ansola | 1:35:44 |
| 3908 | Juan Ignacio Luengo Mato | 1:36:56 |
| 4093 | Bartolome Garcia Carrillo | 1:37:38 |
| 4340 | Nestor Arana Arexolaleiba | 1:38:30 |
| 4378 | Ander Agiriano Errasti | 1:38:39 |
| 4451 | Iñaki Ojea Lete | 1:38:55 |
| 4877 | Jose Luis Idigoras Kortabarria | 1:40:22 |
| 5166 | Angel Kortazar Izurrategi | 1:41:27 |
| 5194 | Mikel Illarramendi Zabaleta | 1:41:33 |
| 5731 | Carlos Alonso Rodriguez | 1:43:45 |
| 5998 | Iñigo Altuna Cortazar | 1:44:51 |
| 6594 | Mikel Zubizarreta Eraña | 1:47:23 |
| 6799 | Itoitz Armendariz Barco | 1:48:13 |
| 9577 | Maite Garcia Haztin | 2:04:41 |
| 9578 | Felix Azkarate Osinaga | 2:04:42 |
| 10127 | AnderZabala Urrutia | 2:13:15 |
| 10362 | Pierre Lacroix | 2:21:10 |

## Oñati

| | | |
|---|---|---|
| 5 | Ritxar Fernandez Alkala | 1:05:29 |
| 40 | Arkaitz Letamendi Andueza | 1:08:42 |
| 93 | Joxe Mendiola Aiastui | 1:11:34 |
| 114 | Ivan Letamendi Andueza | 1:12:04 |
| 143 | Joseba Blazquez Belon | 1:13:07 |
| 199 | Unai Pedregal Martin | 1:14:46 |
| 245 | Ernesto Lorenzo Alvarez | 1:15:47 |
| 321 | Bittor Erle Anduaga | 1:17:10 |
| 402 | Imanol Molinero Mendiguren | 1:18:13 |
| 505 | Iñigo Arregi Murgiondo | 1:19:22 |
| 674 | Mikel Larrea Alava | 1:21:05 |
| 722 | Joxe Angel Agirre Muguzur | 1:21:39 |
| 758 | EstelaBiain Sanchez | 1:21:57 |
| 937 | Iban Guridi | 1:23:25 |
| 939 | Aitor Lukas Etxarri | 1:23:26 |
| 1083 | Joseba Zubia Urkiola | 1:24:20 |
| 1238 | Jabi Osa Isasti | 1:25:13 |
| 1300 | Joseba Lasagabaster Madinabeitia | 1:25:38 |
| 1735 | Ivan Isasti Lazkano | 1:27:58 |
| 1862 | Mikel Arriaran Senar | 1:28:34 |
| 1870 | Josu Odriozola Zabaleta | 1:28:36 |
| 2012 | Javier Cambronel Martin | 1:29:11 |
| 2096 | Jon Ander Aramendi Otamendi | 1:29:29 |
| 2213 | Aitzol Guridi Zubia | 1:29:57 |
| 2274 | Iker Gorostiaga Urrutia | 1:30:11 |
| 2329 | Rufino Aiastui Egaña | 1:30:26 |
| 2378 | IgorArrese Muguzur | 1:30:43 |
| 2485 | Garikoitz Ibarzabal Bastarrika | 1:31:11 |
| 2487 | Ibon Jausoro Murgiondo | 1:31:11 |
| 2657 | Imanol Larrea Leibar | 1:31:52 |
| 2688 | AitorUrzelai Bengoetxea | 1:32:00 |
| 2696 | Xabier Guridi Urzelai | 1:32:02 |
| 2711 | Marisol Ramos Leon | 1:32:06 |
| 2907 | Iñaki Igartua Urizar | 1:32:55 |
| 3032 | Iñigo Anduaga Chacon | 1:33:27 |
| 3046 | Imanol Lukas Etxarri | 1:33:30 |
| 3075 | Juan Carlos Ugarte Leturia | 1:33:39 |
| 3089 | Mikel Murillo Martin | 1:33:41 |
| 3302 | Ander Tarza Lasa | 1:34:35 |
| 3447 | Jose Carlos Serrano Flores | 1:35:08 |
| 3502 | Josu Goitia Zelaia | 1:35:20 |
| 3615 | Karlos Gonzalez Jimenez | 1:35:46 |
| 3634 | Asier Urzelai Agirrezabalte | 1:35:50 |
| 3759 | Iñaki Markuleta Bikuña | 1:36:20 |
| 3767 | Jose Maria Gomez Fraga | 1:36:22 |
| 3936 | Gaizka Arregi Urzelai | 1:37:04 |
| 3964 | Iñigo Regueiro Alonso | 1:37:11 |
| 4037 | Juan Ignacio Etxarri Errasti | 1:37:27 |
| 4084 | Jon Odriozola Gomez | 1:37:36 |
| 4126 | Jose Carmona Moyano | 1:37:46 |
| 4133 | Juan Antonio Agirre Iribar | 1:37:47 |
| 4263 | Iñigo Diaz Otxoa | 1:38:15 |
| 4463 | Luis Mari Ugarte Alzelai | 1:38:56 |
| 4473 | Aitor Markuleta Belategi | 1:38:57 |
| 4491 | Jon Urzelai Guridi | 1:39:00 |
| 4577 | Xabier Arkauz Alzelai | 1:39:19 |
| 4583 | Gorka Tarza Lasa | 1:39:19 |
| 4644 | Aitor Zugasti | 1:39:31 |
| 4728 | Jon Marton Otamendi | 1:39:47 |
| 4957 | Rafael Altuna Erle | 1:40:37 |
| 4982 | Lierni Urzelai Ugarte | 1:40:44 |
| 5012 | Eneko Zumalde Kortabarria | 1:40:51 |
| 5051 | Joseba Zabaleta Igartua | 1:41:01 |
| 5103 | Pablo Arexolaleiba Ugarte | 1:41:11 |
| 5378 | Xabier Rezabal Guridi | 1:42:12 |
| 5606 | Alberto Guerreiro Uribe Etxebarria | 1:43:12 |
| 5621 | Bittor Uriarte Zurikarai | 1:43:17 |
| 5690 | MikelArenaza Letamendi | 1:43:37 |
| 5724 | Santi Mendiola Aiastui | 1:43:44 |
| 5756 | MikelSolagaistua Biain | 1:43:52 |
| 5787 | Francisco JavierVicuña Olalde | 1:43:58 |
| 6005 | Iker Zeldia Rodriguez | 1:44:54 |
| 6445 | Jose AntonioUgarte Inza | 1:46:46 |
| 6460 | Amaia Osa Isasti | 1:46:50 |
| 6528 | Gorka Alzelai Zubia | 1:47:06 |
| 6697 | Koldo Urteaga Urkizu | 1:47:46 |
| 6721 | Gaizka Aranburu Eraña | 1:47:51 |
| 7004 | Jose MariUsatorre Aranzabal | 1:49:13 |
| 7084 | Ion Villar Umerez | 1:49:34 |
| 7169 | Trini Blazquez Diaz | 1:50:01 |
| 7745 | Jesus Lazaro Bellido | 1:52:47 |
| 7802 | Alberto Molinero Tartas | 1:53:06 |
| 8582 | Juan Cruz Ortaza Ganbra | 1:57:17 |
| 9037 | Ibai Perez Letamendi | 1:59:57 |
| 9103 | Maria Isabel Markuleta Larrea | 2:00:23 |
| 9104 | Rosa Mari Etxezarreta Ibarguren | 2:00:23 |
| 9105 | Pili Azkarateazkazua Jauregialtzo | 2:00:23 |
| 9689 | AngelMaiztegi Otermin | 2:05:51 |
| 9944 | Marijo Erostarbe Garitano | 2:09:13 |
| 9945 | Arantxa Alzelai Sagasta | 2:09:13 |
| 10012 | Andoni Lopez De La Calle Mitxelena | 2:10:34 |

**OHARRA:**
Akats informatiko bat dela eta, Fortuna Kirol Elkarteak ez dizkigu 48 bergararren izenak eman. Arrazoi berarengatik, debagoiendarren bat ere falta liteke.







Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA
Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 19 81
Faxa: 943 71 19 82
GIPUZKOA

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko azaroaren 14a

Kultura eta aisialdia

Azaroaren 14tik 21era




Irudian, Hale-Boop kometa. 1997an pasatu zen Lurretik gertuen.

## IZAR IKUSKATZAILEAK DEBAGOIENEAN

**Astronomia-zaleak biltzeko talde bat eratu nahi dute ibarrean**

Zerura begiratzea eta argizko puntutxo mordo bat baino gehiago ikustea. Hori da, Manu Arregi astronomoaren ustez, astronomiarekiko zaletasunaren bidean lehen urratsa. Manu bera horrela hasi zen, 15 urte zituela, eta hura bezala, baita beste hainbat debagoiendar ere. Arregik dioenez, "askorik ere ez"; izan ere, badirudi zaletasun bakartia dela hau gurean. Hori horrela den ikusteko aukera izango da gaur, egubakoitza. Izan ere, Manuk abian jarri nahi du astronomia-zaleek osatutako talde bat; asmo horrekin bilera bat egin nahi du, Oñatiko gaztelekuan, 17:00etan, talde hori sortu nahi duten guztiekin, edozein herri eta adinetako lagunak. Taldearendako ideia politak ditu Manu Arregik: Gorlatik izarrei begiratzea, baina baita Debagoienean behaketa publikoak antolatzea ere, guztiok zerura begiratu eta hor goiko edertasuna ikus dezagun. /14

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO IRUDIA: MANU ARREGI

ZIENTZIA/ **ASTRONOMIA ZALEENDAKO ELKARGUNEA**

# Izarrei begiratzea ez da lan bakartia

ASTRONOMIA GUSTUKO DUTENEK BAKARKA GARATU DUTE EUREN AFIZIOA,BAINA ORAIN, TALDEA OSATZEKO AUKERA DUTE

LEIRE KORTABARRIA

**Astronomia zaletasun bakarti moduan ikusi izan da askotan, kanpotik. Baina taldeka ere berdin-berdin, edo gehiago, goza daiteke, eta ibarreko zaleek talde bat osatzeko aukera dute orain. Edozelan ere, astronomiaren inguruan badaude bestelako topiko batzuk ere.**

Zeruan satelite bat ikusi eta Objektu Hegalari Ezezagun bat ikusi duela uste duen jendea dagoen bezala, astronomiatik kanpo daudenok uste faltsuak dituzte zaletasun horren inguruan. Horietako bat da pentsatzea izarrei begiratu eta zerbait ulertzeko izarrei begiratzea dela lehen urratsa. Alderantziz, Manu Arregi astronomoak gomendatzen digu liburuei eustea. Horren ondoren, teleskopio txiki bat inbertsio ona izan daiteke. 30 bat eurotan eros daitezke.

Manuk gomendio gehiago ematen die astronomian hasi nahi dutenei: etxeko balkoia abiagune ona izan daiteke. Hobeto esanda, izan zitekeen: izan ere, gaur egun, gauzak aldatu egin dira eta gure herriak zeru-behaketa oztopatzen duten argi artifizialez bete dira. Horrez gain, Debagoiena ez da munduko leku onena unibertsoko lilurak behatzeko, hemengo klima dela-eta; hala eta guztiz ere, badaude leku nahiko egoki batzuk. Horietako bat da Gorla, adibidez. Manu Arregi astronomoak hori gomendatzen digu; izan ere, "leku altua eta iluna da, eta hori da zeruari begiratzeko komeni dena".



### NEBULOSAK

**Laguna eta Trifida nebulosak agertzen dira Gorlan ateratako argazki honetan. Nebulosak dira gas eta izar-hautsez osatutako multzoak. Ez dute berezko argirik, baina ondoko izarren argia jasotzen dute, eta ikusgarriak dira.**



### HURRENGOA, 2005EAN

**Europan ikusteko aukera izan genuen eguzki-eklipsea 1999an izan zen. Ondoen Frantzian eta Alemanian ikusi zen, eta Alemanian, hain zuzen, ateratako argazkia da hau. Hurrengo eguzki-eklipsea 2005ean izango da.**



### EZ DIRA ESTRALURTARRAK

**"Jendeak OHE asko ikusten ditu, baina astronomook ez", dio Manu Arregik. Irudiko argi izpi hori ez da OHE bat, satelite artifizial bat baizik. Bat-batean agertzen dira, baina badago aldez aurretik lekua eta ordua jakiterik.**



### ELKARRETIK GERTU DIRUDITE, BAINA...

**Hartz Nagusia konstelazioa jende gehienak ezagutzen du. Konstelazioak osatzen dituzten izarrak distantzia desberdinetara daude: kasu honetan, gertuena 50 argi-urtera dago; urrutikoena, 300 argi-urtera.**

**LEKU ONENA, GORLA**

Gorlara izarrei begiratzera joatea zer den ondo daki Manu Arregi oñatiarrak, eta ziur Debagoieneko beste zale batzuek ere egin izan dutela bide hori noiz edo noiz. Hori bai: konstelazioetako izarrak elkarren artetik argi-urte askora dauden bezala, Debagoieneko astronomia-zaleek bakarka bizi dute euren zaletasuna. Horrekin bukatzeko jarri du abian Manu Arregik ibarrean talde bat osatzearen ekimena.

Talde egonkor bat osatuz gero, astronomiaz hobeto gozatzeko modua izango lukete kideek. Jakin-mina dutenendako ere bilgune aproposa izango litzateke.

**IZARREN BIDEAN BIDAIATU**

Izan ere, astronomiaren inguruko beste uste faltsu bat da zaletasun bakartia dela, etxean edo behatoki batean inora mugitu barik egiten dena. Manu Arregi, adibidez, alde batetik bestera ibili izan da bere zaletasunak eramanda: Alemanian egon zen 1999ko eguzki-eklipsea ikusten; eta, haraino joan barik, Araba aldera ere joan izan da, behatoki natural on baten bila.

Bestalde, teleskopioa ezinbesteko bilakatzen bada ere, argazki-kamera izan daiteke astronomoaren beste lagun on bat. Sateliteak, nebulosak, konstelazioak, kometak… ikusi eta horien argazki zoragarriak atera ditzakete zaleek.

Eta, azkenik, astronomiaren bidez, gure mugetatik harantzago begiratuta, gure planetaren gainean gehiago ikas dezakegu, eta hori beti dator ondo.

**MANU ARREGI** / FISIKOA ETA ASTRONOMIA-ZALEA

# *"Herriari zabaldutako behaketak egin nahi ditut"*

**Oñatin jaio zen, orain 35 urte, eta Bergaran irakaslea da Manu Arregi. Fisika ikasketak egin zituen eta astronomia da bere zaletasun handiena.**

**Non ikasi zenuen astronomiaz jakin beharrekoak?**

Nire kabuz. 15 urte nituela hasi nintzen, nire kontura irakurtzen, *Cosmos* telebista saioa ikusten… Pazientziarekin hartu beharreko gauza da, luze jotzen baitu. Sabadelleko, Bizkaiko, Donostiako… astronomia elkarteekin harremana dut, eta ikastaroren bat antolatzen dutenetan parte hartzen dut, baina zaletasun hau oso zabala ez denez, ez dago hainbeste aukera.

**Debagoienean ezagutzen duzu beste zalerik?**

Hitzaldiak egin izan ditudanean agertu dira hainbat zale, bai. Oñatin, Bergaran, Arrasaten… badago interesa duen jendea.

**Astronomia taldea osatuz gero, zein asmo dituzu?**

Lehenengo gauza izango da ikustea bakoitza nondik abiatzen den, zenbat dakien, eta hortik jarraitzea. Baina taldeko ekintza batzuk badititut gogoan: irteerak egitea, jakina, baina baita dirulaguntzak eskatu, teleskopio bat herriko lekuren batean ipini eta behaketa publikoak antolatzea ere, herriari zabaldutakoak.

**Zein da, Debagoienean, zaletasun hau jorratzeko leku aproposena?**

Gorla leku ona da, altua eta iluna delako. Autoz joan daiteke hara. Beste leku batzuk ere badaude: Arantzazura bidean, esaterako, badaude hainbat gune.

**Eta badago urteko sasoiren bat besteak baino hobea dena?**

Ez, ez dago sasoi jakin bat, baina neguko zerua politagoa da: izar distiratsuagoak daude eta gauza gehiago ikusteko. Hala ere, udakoa ere polita da, noski.

**Zein konstelazio eta fenomeno dituzu gustukoen?**




Manu Arregi.

Konstelazioei dagokienez, Orion polita da. Fenomenoei dagokienez, berriz, eguzki-eklipseak txundigarriak dira, baina zailak dira ikusten. 2005ean izango dugu eraztun-eklipse bat.

**Azkenik, zer ekarri dizu zaletasun honek?**

Unibertsoaren misterioaz gogoeta egiteko modu bat da. Alde batetik, da zeruari begiratu eta gauza bakoitza kokatzea, eta horrek laguntzen du hobeto jakitera non gauden gu. Bestetik, astrofisika pil-pilean dago eta orain dela gutxi jakin da unibertsoaren %90 ez dakigula zertaz egina dagoen. Unibertsoaren misterio horren gainean ez dugu inongo konklusio zehatzik.

**KRONIKA/ GUILLERMO VELAZQUEZ, LOS LEONES DE LA SIERRA DE XICHU ETA JON SARASUAREN EMANALDIA**

# Mariachiak baino gehiago

## DOINU GUAZTECOAK, DEZIMAK ETA TOPADA ENTZUTEKO AUKERA ESKAINI ZUTEN MEXIKARREK

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Guillermo Velazquez inprobisatzaile mexikarrak Los Leones de la Sierra de Xichu taldea lagun zuela emanaldia egin zuen Arrasateko Amaia antzokian, *Ahozko inprobisazioa munduan* kulturen arteko topaketen baitan. Jon Sarasua Aretxabaletako bertsolaria ere alboan izan zuten.**



OLAIA MONDRAGON

**Gillermo Velazquez (erdian) tradizioa berrituz jarduten duen inprobisatzaileak kulturen arteko topaketetan hartu du parte.**

Guillermo Velazquez 1977an trobatzen eta topadetan jotzen hasi zen, musikari eta poeta zaharrak maisu hartuz. Gaur egun, estilo propioa ari da garatzen, gai sozial, kultural eta politikoak ardatz hartuta. Berritu egiten ditu tradizioko forma eta eduki poetikoak, eta horretarako lagun ditu musikariak.

Guanajuatoko Los Leones de la Sierra de Xichu taldea Guillermo Velazquezen eta beste hainbat trobalariren laguntzaile izan da 1982a ezkero. Huastekoena da kantu herrikoien artean indartsuena eta doinu horiek zabaltzen dihardu taldeak.

**KULTUREN ARTEKO TOPAKETAK**

Ahozko inprobisazioak munduan lekua duela erakusteko Bertsozale Elkarteak kulturen arteko topaketak antolatu ditu aurten. Bederatzi herrialde gonbidatu, eta guztiek beraien bat-batekotasuna kaleratu dute.

Jon Sarasua bertsolari aretxabaletarrak egin zuen bertsotan Amaia antzokiko jaialdiaren sarrera, eta argi utzi zuen munduko beste inprobisatzaile batzuk ezagutzeko izango zen aukera.

Bertsoetarik bat honela amaitu zuen, gainera: “Arrasaten be zabal dezagun/leiho txiki bat mundura”.

Sarasuaren ostean, mexikarrak azaldu ziren taularen gainean. Doinu guazteco batekin ekin zioten kantuari, bi biolin eta gitarrak lagun zituztela.

Euskaldunekiko eta bertsolaritzarekiko loturaren aipamenik ez zen falta izan, baina egunerokotasunari erreferentzia egin zioten, beraien herrialdean ohi duten gisan.

Musika mexikarra mariachia baino zerbait gehiago dela azalduz, aurrez ikasitako kantuak propio Arrasateko emanaldirako egindakoekin tartekatu zituzten. Kooperatibismoaren erreferentziak eta herriaren beraren izena beraien kopletan erakusten.

Mexikon ohikoa den topadaz gozatzeko aukera ere izan zen. Lehia edo eztabaidaren antzezpena egitean datza eta Amaia antzokian Coca-Cola eta ura ipini zituzten aurrez aurre.

Mexikoko aireekin Jon Sarasua bera ere ausartu zen eta bere bizitzari gainbegiratua egin zion dezimetan.

Mexiko eta Euskal Herria senidetuta, bertsoak eta dezimak elkar hartuta. Beste herrialde bateko bertsolariak ezagutzeko aukera egon zen, eta ez nolanahikoa, gainera.

**NIREAUKERA**




**‘METAMORFOSIA’**
**Franz Kafka**

**Liburu hau duela gutxi irakurri nuen eta berriz irakurri nahi dut hobeto ulertzeko, oso sakona baita. Gure barnera begiratzean aurkitzen dugunaz mintzo da. Zerbait ona edo zerbait txarra aurki dezakegu hori egitean, edo, akaso, ezer ere ez. Protagonistak munstro bat aurkituko du; ez da gai izango gizakiekin erlazionatzeko eta bere gorputzarekin borrokatu beharko du. Surrealista xamarra da. Beste amaiera bat izango zuela uste nuen, ez ona, baina bai sentimendu gehiagokoa. Baina Kafkak irtenbiderik ez zuela ikusten iruditzen zait; bera bizi izan zen garaian pertsonak ez baitziren baloratzen.** /L.K.



**Edurne Eraña**

53 urte, bergararra. Pintura irakaslea, ikasleen lanen erakusketa Nahikari tabernan.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Azaroak 14-21

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Giza-ekonomia enpresen kudeatzaile** ikastaroa emango du INEMek abenduaren 19ra bitartean, Donostian eta Lasarten. Enpresa proiektu bat garatu gura dutenei dago zuzendua. Helburua da batez ere giza ekonomia arloan prestakuntza ematea. Argibide gehiagorako, deitu Arrasateko Enplegu Bulegora (943 79 71 45).

► **Antzerki mugimendu ikastaroa** abiarazi du Gazte Bulegoak. Azaroaren 17an hasi eta urtarrilaren 26an bukatuko da. Astelehenero izango dira eskolak, Gazteluondo ikastolako aretoan, 18:30etik 20:30era. Izena emateko, deitu 943 77 00 65 telefonora edo idatzi *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net* helbidera.

► **Emakume langabeendako soldadura ikastaroa** hasiko da azaroaren 17an, astelehena, apirilaren 30era arte. Oñatiko Zubillaga auzoko Olaburu Enplegu Zentroan izango dira eskolak, egunero, 14:00etatik 18:00etara. Izena emateko, jo Arrasateko udalaren webgunera (*www.arrasate-mondragon.org*) eta bete han dagoen eskaera orria.

► ***Emakumeen aurkako erasoen aurrean, zer?*** hitzaldia egingo du Maria Angeles Alvarez Madrilgo Emakumeen Fundazioko kideak. Datorren eguaztenean izango da, azaroak 19, Emakume Txokoan, 19:00etan.

► **Haur Hezkuntzaren inguruko II. Nazioarteko Jardunaldiak** egongo dira datorren egubakoitz eta zapatuan, azaroak 21 eta 22, Amaia Udal Antzokian. Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak antolatzen ditu.

### DEBAGOIENA

► **Astronomiaren inguruko** talde bat sortu gura dute, eta bilera bat egingo dute horretarako gaur, egubakoitza, Oñatiko gaztelekuan, 19:30ean. Edozein herri eta adineko jendea dago gonbidatuta.

### ESKORIATZA

► **BarKATU bertso emanaldia** egingo dute Sustrai Colinak eta Amets Arzallusek bihar, zapatua. Unai Elizasu arituko da gai-jartzaile lanetan.

► **Gipuzkoako Bertso Txapelketako** lehenengo finalerdia jokatuko dute etzi, domeka, kiroldegian, 17:00etan. Zortzi eurotan egongo dira salgai txartelak; seitan, bazkide eta gaztetxoendako. Mirentxu tabernan, kiroldegian bertan edo Dorleta liburu-dendan aurkituko dituzue.

► **Ate ireki eguna** izango da bihar, zapatua, Arizmendi ikastolako Almen gunean, 16:00etan. Pailazoak, ipuin kontalariak, tailerrak, luntxa… egongo dira. Helburua da nahi duenak Almen gunea hobeto ezagutzeko aukera izatea.

► ***Cosas que diría con sólo mirarla*** filmaren emanaldia eta horren gaineko berbaldia egongo dira datorren egubakoitzean, hilak 21, kultura etxean, 18:30ean, Amuska emakume taldeak antolatuta.

### OÑATI

► **Psikologia ebolutiboa** gaiaren inguruko jardunaldiak egongo dira Guraso Eskolan, azaroaren 19an eta 26an, 14:45ean. Hizlaria Ezozi Lizarralde aditua izango da. 1-4 urte bitarteko umeen aita-amei zuzendutako ekintza da.

► ***Guraso eta seme-alaben arteko harremanak etxe giroan*** izeneko hitzaldia egingo du Iñaki Martinez psikologoak datorren martitzenean, azaroak 18, Txantxiku ikastolan, 18:30ean. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

► **Lizarrusti-Irumugarrieta-Errazkin** aldera irteera egingo du Aloña Mendi taldeak azaroaren 23an. Izena emateko mugaeguna azaroaren 20a da, eguena, Aloña Mendi tabernan.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Jousilouli** taldearen emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Debagoieneko musika eskola guztietako** taldeek elkarrekin egingo dute emanaldia, lehenengo aldiz. Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara, Oñati, Soraluze eta Mondragoeko musika eskolek parte hartuko dute. Musika Eskola bakoitzak emanaldi bana egingo du. Ekitaldia gaur izango da, egubakoitza, Amaia Udal Antzokian, 19:00etan.

► **Never Surrender, Kalekumiak, Korrosion Zerebral eta Ostiada Oi!** taldeen kontzertua egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 21:30ean.

### BERGARA

► **Paradise lost, Deathstars eta Split 77** taldeen emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Safety Pins (Bilbo) eta Toxic Squeak (Villarcayo)** taldeen kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Donostiako Arala abesbatzak** emanaldia egingo du bihar, zapatua, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan. Sarrera doan.

► **Santa Zezilia dela-eta,** Udal Musika Bandak hainbat ekintza egingo ditu etzi, domeka: kalejira 11:30ean eta kontzertua pilotalekuan, 12:30ean.

► **Techno-house festa** egongo da bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 00:00etan. Honako disko jartzaileek hartuko dute parte: DJ Alberto Okiñena, DJ Eneko Balza, DJ Juanma eta DJ Edmund-ek (Global Music).

### ELORRIO

► **Arriolako XIV. Jazz-blues jaialdiaren barne,** honako emanaldiak egongo dira datozen egunotan: gaur, egubakoitza, Joe Smith's Melodic Workshop taldea (AEB), Ateneoan, 23:00etan; bihar, zapatua, The Chris Jagger Trio (Britainia Handia), Ateneoan, 23:00etan; etzi, domeka, Edu Bighands & Whiskey Tren taldea (Madril), Portalekua tabernan, 22:00etan; azaroaren 20an, eguena, Los Fastuosos de la Ribera euskal taldea, Parra tabernan, 22:30ean; eta datorren egubakoitzean, azaroak 21, Solid! (Norvegia) eta Sant Pau 44 Quartet (Euskal Herria), Ateneoan, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► **Santa Zeziliaren omenezko kontzertua** eskainiko du herriko Musika Bandak datorren egubakoitzean, azaroak 21, parrokian, 20:30ean.

### OÑATI

► **Stacey Earle eta Mark Stuart** musikari bikotearen pop-folk emanaldia egongo da bihar, zapatua, Oñatiko gaztelekuan, 22:30ean. Euren azken lana, *Never gonna let you go,* aurkeztuko dute.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► **Jostailuen erakusketa gidatua** egongo da bihar, zapatua eta etzi, domeka, Olaran etxean, 17:00etatik 20:00etara. Gurasoendako orri informatibo berezi bat egongo da eskuragai. Umeek gurasoekin bakarrik joan ahal izango dute. Jostailuak ukitu, erabili eta probatzeko aukera egongo da.

### ARRASATE

► **Arrasateko Tailaginen Elkarteak (ARTE)** erakusketa egingo du. Datorren eguenean zabalduko dute, azaroak 20, Iturriotz kaleko Harresi aretoan, eta abenduaren 3ra arte egongo da

## DEIAK

### ANTZUOLA

► ***Afektibitatea eta sexualitatea nagusiengan*** delako hitzaldia egongo da datorren eguenean, azaroak 20, Olaran etxean, 17:00etan. Segidan, gaztaina erre jana egongo da, parrokia-salan.

► ***Autobabesa: umeen larrialdietan zer egin*** berbaldia egongo da datorren eguenean, azaroak 20, eskolan, 18:00etan. Gurasoei zuzendutako berbaldia da.

### ARRASATE

► **Enrike Letona aska dezaten eskatzeko** kale-agerraldia egingo dute bihar, zapatua, Herriko Plazan, 19:00etan.

Adi!

ARRASATEKO
BATZOKIA
Zabalik!

• Eguneko menuak
Baita zapatuetan ere!
• Karta
• Plater konbinatuak

Iturriotz 41
Tel.: 943 79 85 72




► BERTSOLARITZA

### GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO FINALERDIA ETZI ESKORIATZAN

Aurrera doa Gipuzkoako Bertso Txapelketa. Ibarrekoak aritu dira eta paper bikaina egin dute, eta orain, txapelketaren azken txanpa hasi da. Lehen finalerdia ikusteko aukera izango dugu etzi, domeka, Eskoriatzako kiroldegian. Honako bertsolariak sailkatu dira: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Bixente Gorostidi, Amaia Agirre, Arkaitz Goikoetxea eta Estitxu Eizagirre; aurkezle lanetan Egoitz Aizpuru oñatiarrak jardungo du. Eskoriatzakoa izango da jokatuko diren hiru finalerdietako lehenengoa; beste biak Zarautzen eta Tolosan izango dira. Horietan sailkatzen direnek finalean neurtuko dituzte indarrak, Irunen, abenduaren 14an. Etzi, Eskoriatzan, Unibertsitateko aparkalekua zabalik egongo da.

**Non:** Eskoriatzako kiroldegian. **Noiz:** etzi, domeka, azaroak 16. **Ordua:** 17:00.



## ‘LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS’ ANTZEZLANA ARRASATEN

*Las mujeres de verdad tienen curvas* antzezlana taularatuko du Ados antzerki taldeak etzi, domeka, Arrasateko Amaia Udal Antzokian,19:30ean. Hego Ameriketatik bizimodu hobe baten bila Europara etorri diren bost emakumeren istorioa da. Legez kanpo egiten dute lan, eta euren lantegiak porrot egin ez dezan gogor jarduten dute. Bitartean, euren bizitzaz, familiaz, ametsez… egingo dute berba.

ikusteko aukera. Bisita orduak hauek izango dira: astelehenetik egubakoitzera, 18:00-20:00; zapatuetan eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

► **Oskar Marulandaren** argazki erakusketa bisitatzeko aukera dago gaztetxean, azaro osoan.

### BERGARA

► **Edurne Eraňaren** margo ikasleen lanen erakusketa ikusteko aukera dago Nahikari tabernan.

► **Amnesty International** taldearen *Giza eskubideak, emakumezkoen eskubideak* erakusketa egongo da zabalik azaroaren 17tik 30era arte, kultura etxean. 20 argazkik osatutako erakusketa da. Bisitatzeko egun eta orduak hauetxek izango dira: astelehenetik egubakoitzera, 18:00-21:00, eta zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-21:00.

### OÑATI

► **Amnesty International** taldearen erakusketa egongo da kultura etxean, gaur arte, egubakoitza. *Giza eskubideak, emakumezkoen eskubideak* izenburua du erakusketak.

► **Luis Laskurain** bergarar margolariaren erakusketa egongo da zabalik kultura etxean azaroaren 17tik 30era bitartean, honako egun eta orduetan: astelehenetik egubakoitzera, 18:30-20:30; zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:30-20:30.

## ANTZERKIA

### ESKORIATZA

► ***Top manta*** antzezlana eskainiko du Txatxilipurdi taldeak datorren eguenean, azaroak 20, frontoian, 17:00etan.

► ***Elevator*** antzezlana eskainiko du Gilkitxaro antzerki taldeak datorren eguenean, azaroak 20, udaletxe zaharrean, 22:00etan.

## LEHIAKETAK

### DEBAGOIENA

► **XVII. Arrasate Lehiaketak** deitu ditu AED elkarteak. Ipuin, poesia, bertso-paper, komiki eta euskalki grabaketa kategorietan parte hartu ahal izango da. Parte hartzeko mugaeguna otsailaren 6a izango da. Argibide gehiagorako, jo AEDra.

### EUSKAL HERRIA

► **Gabonetako Argazki Lehiaketa** deitu du Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak. Topaguneak bere bezero, bazkide eta lagunei urte berri on eta Gabon jai zoriontsuak opatzeko euskarria diseinatzea du helburu. Lanok Arrasateko AED elkartean entregatu, azaroaren 22a baino lehen, datorren zapatua.

# Zinema

## ARRASATE

**■ AMAIA ANTZOKIA**

***Bowling for Columbine***
Eguena, azaroak 20: 21:30.

## BERGARA

**■ NOVEDADES**

